



Fernando MIKELARENA
Euskadi Literatur Saria
→ 11

Gehigarri berezia

Eraikuntza → 21

BERA → 11

XVIII. Kafe-antzerki zikloa azaroaren 4an hasiko da

AURTITZ → 20

San martin bestak azaroaren 10etik 13ra

GOIZUETA → 55

Jubilatuena Eguna prest du Umore Ona elkarteak

BAZTAN → 59

50. urteurrena ospatu du Elizondo Lanbide Eskolak

Lesakako Tantarumairu ikastolak antolatuko du 2017ko Nafarroa Oinez

→ 12



Ilunetik argira

Urriaren 12an atera zituzten Gazteluko Legarrea leizetik duela 80 urte hara botatako Juana Josefa Goñi eta bere sei seme-alaben azken hezurdurak. Aranzadiko Pako Etxeberria eta Lourdes Errasti aritu ziren zeregin hori koordinatzen eta orain gorpuzkinak laborategira eramane eta informe tekniko bat egingen dute «egia ofiziala» jakin dadin. → 53

**ELKARRIZKETA → 3**

Ipar Euskal Herriko bertsolari txapelketaz Karlos Aizpuruarekin.

DONEZTEBE → 18**I. Udazken literarioa zikloa**

Urriaren 21etik abenduaren 9ra, literaturaz gozatzeko hamaika aukera izanen dira. Tartean, Malerrekako idazleen solasaldiak.

**ERREPORTAJEA → 4-5**

Perun lankidetzaren proiektu bat abian jarri du Gazteluko Iraide Sagardiak.

ZOZKETAK → 55

Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo idatzi
info@ttipi.eus-era.

BAZTAN-BIDASOKO I. EZKONTZA ERAKUSTALDIA

GORA EZKONBERRIAK!

PARTE HARTZEN
DUTE:

**URGAIN
HOTLEAN**

ALEX GAZTELUMENDI
ARGAZKILARIA

DJ PALI

MARTZUTZAK
FESTETAKO SOINEKOAK

**SASTRERIA
ALDABALDE TREKU**

LA PETITE MARIEE
DE SOPITE
EZKONTZA SOINEKOAK

BIDEOMIK

IBARROLA
HAUR ARROPA DENDA

GARDEN ESTHER
LORADENDA

DUUE ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

12:30-EAN DOAKO LUNTXA

EZ GALDU GURE MODA PASARELAI!
17:00 etan

AZAROAREN 6AN, IGANDEA URGAIN HOTLEAN (ORNOZ-MUGAIRI)
ORDUTEGIA: 11:00etatik - 19:00etara

Domotikak bizitza errazten dizu

Energia aurreztu | Eskuragarritasuna | Segurtasuna | Komunikazioa



Zure etxe-bizitza automatizatu nahi?

Domotika lanak egiten ditugu.
Zure mugikorretik etxeko berogailua, aire egokitua, argiak...
piztu edo itzali ditzakezu. Pertsianak igo, jaitsi...

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Elektragarriuen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa.
Antenak, satelite bidezko instalazioak.

Sukalde berriaren diseinu eta gremio guztien koordinazioa.

Utzi gure esku zure sukalde berria!

T. denda 948 631 217 | T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6-BERA | jaurenabera@gmail.com

movistar+ banatzaile ofizialak

Jaurena

Azaroaren 12an jokatuko da Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko V. Bertsulari Xapelketaren finala Baionan eta larunbat honetan, urriak 29, Larresoron laugarren eta azken finalaurre-

koa. Orduan erabakiko dira sei finalistak. Txapelketan dabilen bertsolari gehienak sortzez oartzuarra baina Saran bizi den Karlos Aizpuruaren ikasleak izandakoak dira, 12 urte

eman baitzituen Ipar Euskal Herrian bertsolaritza erakusten, Hendaiatik Mauleraino. Gaur egun, Mintzola Ahozko Lantegian ari da, eta Sarako bertso eskolako irakaslea ere bera da.

Karlos AIZPURUA | Sarako Bertso Eskolako irakaslea

«Txapelketaz gain, plazetarako aukera eman behar zaie gazteei»

G. PIKABEA | SARA

Xilabaren V. edizioa da aurtengoa. Nolako bilakaera izan du?

2008an izan zen lehena. Aurrez, 1998tik 2008ra, lan handia egin zen bertso eskoletan eta ikastoletan; ilusio handiz, kilometro eta militantzia ordu asko eginik. Bertsolari belaunaldi bikain bat formatu eta plazaratu zen; lan hura egin ez balitz ez genuke Xilabaz hitz egingo orain. Bilakaera? Maila duina eman du beti. Publiko kopuru egonkorra lortzera iritsi da. Bertsolari kopurua igotzen joan zen baina aurten hamabostera jaitsi da, nahiz bertso eskoletan gazte pila dabilen. Zer pentsatua emanen dit. Txapelketa ongi dago: bertsoalaritza sustatzen du, bertsozaleak biltzeko balio du, baina bi urteko tartea denbora handia da bertsolari gazteentzat; plazan aritzeko beste aukerarik ez badu, bertsoa uztea ez da harrizkoa. Lan bat egin beharko litzateke herrietako besta komite, ikastolekin,... bertsolari gazteek txapelketaz gain, beste plazarik eduki dezaten.

Nola bizi duzu Xilaba? Emozio koktela da. Batetik, poza; hasiera hartan asko kostata eta hala moduzko baldintzetan egindako lan baten ondorioa baita. Aurtengoa ere parte hartzen du-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Xilaban parte hartzen ari diren bertsolari gehienak Karlos Aizpuruaren ikasle izanak dira.

ten bertsolari gehienak ikasle izan nituen, eta beste bost ikasle ohi gaitzaila taldean ari dira. Beraz pozik. Aldiz, pena txiki bat ere badut, denbora gutxian bertsolari asko trenetik jaitsi direlako: Maindi, Patxi, Gillen, Kristiñe, Ximun, Txomin, Maiana, Maddi Ane, Mizel, Ekhi, Bixente Hirigarai, Xan, Luku anaia, ... Pentsa guztiek parte hartuko balute! Amets eta Sustrairekin maila bikaina segurtatua dago. Baina ari ez direnek maila ona eta batez ere bertsoak originala dutenez, bada pena hartzen dut. Gero, esan gabe doa, bakoitzak erabaki behar du zer egin bere bizi-tzan... Ikasketak urrun,

XILABAN BERRIZ?

«2008an parte hartu nuen Xilaban, parte hartzaile gutxi baitzen eta ziklo bat ixteko modu polita zelako. Etorbizunean itzul naiteke, nork dakin!»

BERTSO SAIOAK

«Zaleak diren herrietan antolatzen dira naturalki; bestela plan orokor baten baitan sustatu behar dira, 1998an bertso eskolak sortarazi ziren bezala, bestela ez ziren sortuko, ezta bertsolariak ere.»

helduen bertso eskola baten beroaren falta, plazetan aritzeko aukerarik ez... bertsoaren trenetik jaitea ez da hain zaila Iparraldean. Kontua da, euskaren periferian bertsolari gazte batek uzten duenean, hutsunea erlatiboki askoz handiagoa dela Bizkaian edo Gipuzkoan baino, total absolutua txikia baita.

Ilusioa itzali zaizu?

Zitzaidan, eta berriz piztu. 1998an hasita, 12 urtez ilusio handia genuen desagertzera zihoala ematen zuen zerbait pizteko ahaleginean. Piztea ez ezik indartu, garatu eta etorkizunerako bidea argitzea lortu genuen. Aldiz, 2002ko urtarrilean, pozarren geunden une-

an, bertso eskola berriak eta bertsolari gazteak errealitate ziren, Nafarroako txapela bitan etxeratu genuen eta Euskal Herriko finalean lapurtar bat aritu ondoren, haserreak azaleratu ziren, zergatia sekula ulertu ez dudana arren. Frustrazio handia izan zen lagun minak elkarrekin muturka eta gezurka sumatzea... Giro horrek faktura pasatu zion proiektuari. Denbora pasata, pertsonak onean ariko diren esperantza galtzen duzunean, ilusioa galdu eta lekua beste bati uztea erabakitzen duzu. Aldiz, urak beti egiten du bere bidea. Duela bost urte Sarako bertso eskola sortu genuen eta horretan asetzen dut bokazioa; 11 urteko haur bat bertsotan egin dezan lortzea eta garatzen laguntzea izugarriko atsegina da.

Nola ikusten duzu Saran bertsolaritza?

Bertsozale batzuk badira. Bertsotan ari garen bi bagara, Ellande Alfarro eta biak. 15-16 urteko bi ikasle ohi ere ari dira, Etxeberria ahizpak; herriko balkoian bertsotan aritzera ailegatuko balira, Ametssek edo Maialenek baino zirrara handiagoa eragingo lukete! Bertso eskolan 10-11 urteko lau haur ditut taldean; Saran urtero hiru saio antolatzen ditugu... Ez da gutxi!

ELKARTASUNA → GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA

Urrunean hurbil

Peruko Pamparomas eskualdean lankidetzaren proiektu bat abian jarri du Gazteluko Iraide Sagardiak

Abuztuan bueltatu zen Iraide Perutik, baina ez du begirada handik urrundu. Herrialde hartako errealitatea ezagutu ondotik, egoera aldarazteko zerbait egin behar zuela erabaki eta *ONG Pamparomas Creciendo Juntos* Gobernu Kanpoko Erakundea sortu du, hango herritar batzuekin elkarlanean. Orain, lanari segida emateko Perura joan nahi duten boluntarioen bila ari dira.

Eneritz IRAOLA

Aurtengo udan boluntario joateko modua zuela ikusita, *Mujeres en Mision Humanitaria* elkartearekin jarri zen harremanetan Iraide «lagun baten ama elkarteko kidea da eta beragomendatu zidan Pamparomasera joatea».

Uztailaren 6an ailegatu zen Peruko mendialdean dagoen eskualdera eta Rosa Villonen aterpean hartu zuen ostatu «bere etxeko atak zabaldu zizkidan eta lehenbiziko momentutik, harreman hagitz estua sortu zen gure artean. Berari esker, bertako herritarrek bizi duten egoera, premia, irtenbideak...

zein diren jakiteko aukera izan dut eta Gobernu Kanpoko Erakundea sortu dugu elkarlanean».

ESKOLAKO UMEAK

Goizetan eskolako haurrekin eta arratsaldetan emakume taldearekin lan egitea zen berez Iraideren egitekoa «baina Gizarte Integrazioa ikasi eta Isterrian behar bereziko eskola batean lan egiten dudanez, ikasteko arazoak dituzten haurrekin ere lan egitea proposatu zidaten».

Gurasoekin hitz egin da jakin zuen bertako egoeraren berri «beraien bizipenak kontatu zizkidaten eta hor hasi nintzen konturatzan ber-



Haur guztiak hezkuntzarako eskubidea izatea da erakundearen helburuetako bat.

DATUA

42

HERRIKI
osatzen dute

Pamparomas eskualdea,
Peruko mendialdean dago
2.700 metro tara.

tako ume hauen errealitatea zein zen. Ekonomikoki dituzten arazoak, eskolara joateko egin behar duten bidaia luzea,

«Gure eskuetan dago familia askoren egoera aldatzea. Guretzat bizipen polit bat izan liteke eta beraientzat berriz, bizi berri baten hasiera»

Iraide SAGARDIA

Gizarte-hezitzailea eta *ONG Pamparomas Creciendo Juntos* erakundearen sortzailea

baliabide materialen gabezia... Hala ere, ez zaie nekerik nabari. Inoiz ez dut ikasteko hainbertze gogo duen umerik eza-gutu».

Klaseko denbora eskas geratu eta «umeak

gelatik atera eta beraiekin lan egiten hasi nintzen». Bazen ordea, ongi ulertzen ez zuen kontu bat «behar bereziko haurrekin lan egiteko eskatu zidaten baina ez zegoen halako kasurik.

Proiektu zabala

1. Hezkuntza

Behar bereziak dituztenenentzako eskolako materiala prestatu eta familiak heztea. Eta hezkuntza orokorrean ere sakontzea.

2. Lanerako aukera

Dituzten bitartekoei etekina ateratzea. 'Bertzeak egiteko gai badira gu zergatik ez?' pentsaraztea. Gazteei lanerako aukerak ematea.

3. Turismoa

Bertako baliabide historikoak indartzea da asmoa. Herritarrak horretaz jabetu eta burujabeak izateko bertze bitarteko bat izatea.

4. Baliabideak eman

Dirua bidali beharrean, baliabideak eskaini nahi dizkiete eta beraiei mortibatu, beraien egoera hobetzeko lan egin ditzaten.

5. Erregistroa osatu

Beharrak dituzten haurrak zenbat diren erregistro batean bildu nahi dute. Egoeraren argazki erreala atera ahal izateko.

**LAGUNTZAREN ORDEZ
BALIABIDEAK**

«Laguntza ekonomiko bidali ordez, baliabideak eman nahi dizkiegu, lan eginez beraien egoera hobetu dezaten».

HURRENGO PAUSOAK

«Erakundea sortuta, proiektua bukatu eta finantziarioa lortzen hasiko gara. Europa mailan zabaldu behar dugun proiektua da eta lan pila bat dago gibeletik».

Ikasteko zailtasunak ziztuzten batzuek baina bertzelako zailtasun psikiko edo fisikorik ez. Ez zen posible inor ez egotea eta bila hasita, jakin nuen ez nenbirela oker. Kasu aunitz zeuden, baina ikusezinak ziren ez zegoelako erregrorik».

IKUSEZINA ZEN ARAZOA

Herriz herri galdezka joatea erabaki zuen orduan eta aurkitzen zituen kasuak biltzen joan zen «egoera latzak asko ziren. Garun paralisia zuen neskatu bat, behar bereziak zituzten hiru



ÚTIZITAKO ARGAZKIAK

Udan honetan Iraidek Pamparomasen ateratako argazkiak.

hau eta aita itsua zen familia bat...». Hilabeteko egonaldiak bukatzeaz zela ikusita, «zerbait egin behar nuela sentitu nuen. Denbora luzez hitz egiten aritu ondotik, Gobernuz Kanpoko Erakunde bat sortzea erabaki genuen Rosa Villar eta biok». Erregistro lan horri segida ematea zen lehenbiziko asmoa «ka-

su guztiak biltzea, baina proiektu zabalagoa garatu dugu azkenean. Rosaren lagun psikologo baten laguntza izan dugu horretarako eta lau bazkide ere baditugu».

HEZIKETA ESKAINI

Haurren heziketari garrantzia handia eman nahi diote «eskolarak joaten diren haurren egoe-

ra hobetu eta etxeetan dauden umeei heziketa jasotzeko aukera eskaini nahi diegu». Horretarako, beharrezkoa izan da Iraideren ustez hango irakasleei formazioa eskaintzea «behar bereziak dituzten haurrendako material ego- kitua prestatzeko baliabideak eman, nola zaintzen diren, kasu bakoitza nola

landu... ikasi behar izanen dute». Eta eskolatik haratago, «familiak ere hezi beharko dira. Ezjakintasun handia dago. Delikuentzia tasa altua ez bada ere, indarkeria kasuak eta sexu gehiegikeriak izaten dira. Herriarrei ahalik eta informazio gehien ematea garrantzitsua da». Helburu horiek lortzeko, «hemen- dik prestatutako jendea bidaliko dugu».

GAZTEENDAKO AUKERAK

Hezkuntza ez da landuko duten arlo bakarra izanen, «gazterik ez dago eskualdean, denek hirira jotzen dutelako lan bila. Turismoa lantzeko proiektu bat dute martxan Rosak eta hango zenbait gaztek eta hori indartu nahi dugu. Nekazaritza kanpo lanerako aukera bat eskainiz».

ERRONKAK

Herrialde honen egoera aldatzea dute helburu «badakigu ez dela egun batetik bestera gertatuko, baina ilusiorik ta lanerako gogorik ez zaigu falta». Gaztelu eta Pamparomas artean itsasoa eta milaka kilometro egon arren, «elkarrekin hazten joateko».

Iraide SAGARDIA | 'ONG Pamparomas Creciendo Juntos' erakundearen sortzailea

«Katea ez etetea da gure asmoa, hemengo boluntarioren bat beti han egotea»

Hilabeteko egonaldiak «bizitza aldatu» ziola aitortu digu Iraidek «zaila izan zen Gaztelura itzultzea baina Isterrian egiten dudana ere gustuko dut oso. Pamparomas Creciendo Juntos erakundea sortuta biak uztartzeko modua topatu dut». Behar bereziko haurrekin lan egiten duenez, bereziki hunkitu zen Peruko haurren egoera ikusita «Euskal Herrira ezin nuen ezer egin gabe itzuli. Ez zen inoiz inor beraiengana joan, sekula ez dute inongo baliabiderik izan eta etxeetan daude eskolara joan gabe». Egoera hori aldatu nahirik hasi ziren erakundea sortzen eta proiektua zabaltzen joan da «eskualde horretan dauden bertzelako beharrak ere asetu nahi ditugu». Helburu argia dute «katea ez etetea da gure asmoa, hemengo boluntarioren bat beti han egotea». Hain zuzen, «laguntza ekonomiko bidali ordez, baliabideak eman nahi dizkiegu, lan eginez beraien egoera hobetu dezaten». Psikologo eta publizitate arloko langileekin lan talde bat sortu du Iruñean «borondatez ari dira lanean eta gastuak gure poltsikotik ordaintzen ditugu. Ezin diet hitzez azaldu nire esker ona... ». Urriaren 26an emanen du erakundeak hurrengo pausoa «hasitako lanarekin segitzeko lehenbiziko boluntarioa joanen baita Iruñeatik Pamparomasera». Eta urriaren 29an erakundea aurkezteko besta antolatu dute Etxaurin «Ornozko ipuin kontalariak, pintxoak eta musika izanen dira, animatu zaitezte!».



**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

Irria

Zein hitz laburra, Irria. Zenbat gauza erran daitezkeen irriari buruz. Zenbat gauza adieraz dezakeen irriak, deus erran gabe eta era berean dena erranez. Zein polita den irri egitea eta zein gutti egiten dugun irri. Zein onuragarria den irri egitea eta zein merkea. Halere...

Irria ezagutzen ez dutenendako, erran, mota desberdinak daudela, eta denak zilegi direla. Irri iheskorra, irribarrea, irriñoa, irri maltzurra, irri lotsatia, irri-karkaila... irria azken finean. Batzuk berezkoa dute irria, bertze batzuk entsegatu beharko lukete, egunero, beharbada ispiluaren aitzinean. Norberak eskertuko du, jendarteak ere eskertuko du.

«Irri iheskorra, irribarrea, irriñoa, irri maltzurra, irri lotsatia, irri-karkaila... irria azken finean»

Entsega dezagun bada, egin dezagun irri. Irri egiten duen herria ez baita inoiz hilko.

Saiatu, egin irri, gustatuko zaizue, gustatuko zaigu. Irrikaz nago zuen irria ikusteko.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Txertoaren kontrako txertoa

Ezin da ukatu hainbat eritasun desagertarazi dituztela eta txertorik eman ezinik, milaka haur hiltzen direla herrialde pobreenetan. Kontrako efektuekin ere kezkatuak daude hainbat lagun. Al-bistegietan aditua dut gripearen kontrako txertoa bultzatzeko (?) notizia: *laz 22 lagun hil ziren EAEn gripearengatik, horietatik 8 txertatu gabeak ziren.* Bertze 14ak txertoa emana zuten? Kontra edo alde?

NabarmentzekoakFernando MIKELARENA
Euskadi Literatur Saria

Euskadiko Literatur Saria irabazi du historialari beratarrak gaztele-rakzo saiakera atalean, Pamielak argitaratutako *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936* liburuarekin.

Maika ARIZTEGI
Euskal Herriko txapeldun

2014an jokatu zen lehen aldiz emakumezkoen ingude-jasotze txapelketa eta iturendarrak irabazi zuen. laz bigarren izan zen eta aurten berriz ere txapela berreskuratu du, 93 jasoaldi eginez.

Martin Jose MAIORA
Ehun urteko beartzundarra

Auzoko bestetan omenaldia egin zioten Antzanbordaundikoari, ehun urte beteta, bera baita Beartzungo zaharrena. Aurrekua dantzatu ondotik zapi gorria jarri zioten.

Atzera begira → 2006-XI-02 TTIPI-TTAPA 433 zk.**Mololo Irigoien eta Xabier Zozaiari omenaldia Lesakan**

Duela hamar urte, Munduko pilota txapelketatik urrezko dominarekin itzuliak ziren herriko Mololo Irigoien (eskuz) eta Xabi Zozai (palaz) pilotariei ongi me-rezitako omenaldia eskaini zitzairen urriaren 14an Lesakako udal pilotalekuan. Hasieran, beraien kuadrillek antolatutako ekitaldi xumea izan behar zen, baina azkenean, Arkupe pilotazale elkarteak eta Udalak ere bat egin zuten omenaldiarekin. Pala motzeko eta eskuzko pilota partidu bana jokatu ondotik hainbat sari eta oroigarri jaso zituzten Mololok eta Zozaiak. Pilotarien artean, orduan palaz aritzen zen eta gaur egun erremonteko txapelduna den Urriza zegoen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Tellebexa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

| | |
|--------------------------------|------|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 34€ |
| Leitza | 20€ |
| Hego Euskal Herria | 40€ |
| Ipar Euskal Herria, Europa | 74€ |
| Amerika eta Australia | 124€ |



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Irakasleekin hitzegiten

Esteban IRUSTA MALLEA

Irakasle askorekin hitzegin dut bere lanari buruz, lanbide horretan nik ere urte asko pasa ditudalako. Ni hasi nintzenetik urte batzuk igaro dira eta bizitza asko aldatu da. Garai haietan bizitza geldoagoa zen. Ikastetxeetan ere gaur baino lasaitasun gehiago zegoen. Ikasgaiak ez ziren hainbeste aldatzen, bizimodu bera bezala. Irakaslearen agintea, sinesgarritasuna ez zen sekula zalantzan jartzen. Haurren gurasoak beti agertzen ziren irakasleen alde. Ikasleek, bazekiten ez zutela asko irabazterik izango etxean zerbait kontatuko bazuten ere irakasleen aurka. Inoiz irakaslearen zigorrari beste bat gehitzen zitzaion gurasoen aldetik. Garai haietako guraso gehienek ez zuten unibertitate baten ikasteko aukerarik izan, baina denbora gehiago pasatzen zuten seme-alabekin. Haurren bakarkako portaera bat da, eta taldekakoa beste bat. Hau ez da gertatzen denekin, baina bai askorekin. Eta portaera desberdin hau ez dute ezagutzen sarritan guraso batzuk. Zorionez, guraso eta ikasle gehienekin ez dago arazorik. Baina ikasgela bakoitzean nahiko dira bi edo hiru ume bihurri, nahastaila, gela guztiko giroa hondatzeko. Sasoi batean arazo hauek gurasoekin adostutako zigor batekin konpontzen ziren. Baina gaur egun, zigor-metodo horiek ezin dira ezarri. Eta zigor-bide berririk asmatu ez denez, irakasleek nahiko buruhausterekin dabilta. Egoera honek irakasle asko gogogabetu ditu. Beraien artean laneko bajak ugariak omen dira. Porrotaren sentipena handia izaten da, eta ikasle guztiek beraien ikasketak gainditzeko helburua ia inoiz lortzen ez denez, sentipen horiek kronikoak bihurtzen dira. Eta sentipen horri gehitzen bazaio gurasoen ulertezintasuna, arazoa larritu egiten da. Teorian denok omen gara gai egiten duguna baino askoz gehiago egiteko. Ahal dugunetik % 8 edo 10 bakarrik erabiltzen dugula esaten dute jakintsuek. Musikagile ezagun bati galdetu zioten ea nola lortzen zituen lan hain ederrak egitea. Eta erantzuna hauxe zen: Lana eta lana eginez. Zerbait lortu nahi dugunean lana da ezinbesteko osagaia. Beste bideak lagungarri izango dira, baina lanik gabe ez da ezer garrantzitsua denik lortzen. Lana oinarri ezinbesteko hartuz, beste irakasbideak, irakasteko metodoak ezin dira baztertu. Baina zein bideak erabili, eztabaidagarri izaten da, sarritan. Gure gazte denboretan, adibidez, kaligrafia-ri eta ortografiari garrantzi handia ematen zitzaion. Geroago kaligrafia alde batera utzi zen ikastetxe askotan. Horren ondorioak sufritzea tokatu zitzaion gaztelaniazko literatura ematen zuen irakasleari. Inoiz, 100 bat azterketako lanak zuzentzea tokatzen zitzaion. Eta bere lanak izaten zituen idatzitakoa ulertzen. Ortografiako hutsuneak zuzentzea ia alferrikakoa zen. Udako ikastaro batean, Madriletik etorritako irakasle batekin komentatuz ortografiako hutsuneei buruz, Espainua guztiko ikasleen arazoa zela esan zizun. Ez zeukala euskararekin zerikusirik.

Galderak Legarreko leizeari begira

Mikel TABERNA IRAZOKI *Kapi*

Nork ez du erran Juana Josefa Goñi Sagardiak ezkerreko ideia arriskutsuak zituenik. Ez zuten hil Errepublikaren aldekoa izateagatik 1936ko abuztuaren hondarrean. Are guttiago bere sei seme-alaba gazteak. Hala ere, gerra giroak lagunduko zuen, erraxtuko zuen, dudarik gabe. Zenbaiten biziak bi sos baliorekin hilabete haietan. Batek baino gehiagok ongi aprobetxatu zuen sobera maite ez zuen norbait garbitzeko. Herritik bidali omen zituzten lehenbiziko, eta mendiko etxola batean jarri omen ziren bizitzeko. Gero, han ere ez ikusi nahi. Handik aterarazi familia osoa (senarra kanpoan zen eta ez zioten hurbiltzera utzi), etxolari su eman, eta lurreko zulo ilunera bulkatu. Hil ote zituzten aitzinetik edo bizirik bota? Ez dut horren erantzunik aditu nahi. Gaizkitu egiten nau pentsatze hutsak. Baina zergatik izugarrikeria hura? Jende pobrea izaki eta jateko ebasten zutelakoz? Nork sinetsiko du halakorik. Bakarrak bizi zen emakume bat zen. Guardia zibilaren informeak erraten zuen Juana Josefaren bizimodu ez zela sobera zuzena: “de vida irregular” (behar ez bezalakoa). Bertze toki batzuetan urte haietan gertatu zen bezala, Jaungoikoaren izenean xaxatu ote zuten jendea “sasi zikina erretzera”, krimena egitera? Ez ote zuen zerbait egiten ahal denbora hartan Gazteluko eliza gobernatzen zuen gizonak? Pentsamenduak kaskora ekartzen dizkit egunero-egunero aditzen ditugun emakumeen kontrako indarkeria kasu guziak. Juana Josefa hura ere ez ote zen andre baliante bat, gizonen bati ezetz errateko atrebentzia izan zuena? Gizon boteretsuren bati akaso? Familia esperoan zegoen hil zutenean. Norena ote zen sabelean eramaiki zuen haurra? Legarreko leizeko hezurrei begira, gainerakoen ginetik sortzen zaidan galdera kezkarria Mikelarena historialari bere *Sin piedad* liburu jorian (aurtengo Euskadi saria; zorionak, Fernando!) bertze batzuen artean irakurri diodan hauxe da: nola liteke eguneroko bizimodu normala egiten duten pertsona batzuk (“de vida regular” erranen zuen orduko guardia zibilaren informeak) guetetik egunera gupidarik gabeko asesino bihurtzea? Eta neure buruak ere ikaritzen nau.

«Hil ote zituzten aitzinetik edo bizirik bota? Ez dut horren erantzunik aditu nahi. Ikaratu egiten nau pentsatze hutsak».

«Nola liteke eguneroko bizimodu normala egiten duten pertsona batzuk (“de vida regular” erranen zuen orduko guardia zibilaren informeak) guetetik egunera gupidarik gabeko asesino bihurtzea?»



Irakurleak mintzo

Marimendiri eskertza

Mari Karmen ERKIZIA
ALMANDOZ (BERA)

Berriki ezusteko telefono deia jaso nuen, Marimendiko lagunak ziren, Orhi eta Oltzaurtera joateko gonbitearekin, mendi buelta, lagunak, pasaia zoragarriak, telebista tarteko izango zela ere erran zidaten, nik berri, beno agian baietz, belauneko ebakuntza berria zela eta ez nekiela, ikusi nuela...

Eta haiek tematuta, nola ez zara etorriko mendira, benga!!

Ez dut sekula bi aldiz pentsatu behar izan mendiko oinetakoak jartzeko, azken urtetan 2 motxila handi darmatzat gainean, denborarekin arintzen doazanak eta arintze horren arrazoia beste batzuen artean mendiak ematen didan pakea, lasaitasuna eta nire buruarekin hobeto egoteko parada dira.

Mendi bueltan jaso nuen ezustekoa, izugarria izan zen, inola ere

espero ez nuena eta oparitu zenidaten makilak, badakit arinago joaten lagunduko didala.

Mila esker bihotzez berri ere Marimendiko lagunei.

Igantzikoko herriari eskerrak

Igantzikoko Udala

Badira bi aste baino gehiago Igantzikoko Bestak akautu direla eta hauen balorazioa egiteko garaia da guretzat:

Aurtengo bestetan, orokorrean, giro lasaia eta alai sumatu dugu.

Antolatutako ekintza guzietan arrakasta izan dute, jendearen parte hartze handia izan delarik denetan. Haur, gazte eta zaharrek elkartasuna eta bestaz gozatzeko gogoia adierazi dute etengabe.

Ildatzi honekin eskerrak eman nahi dizkiogu hau lortzen lagundu duzuen guziori:

Igantzikoko gazteei: urtero-urtero zuen ideien

Bota bertsoa

Ekhiñe ZAPIAIN ARLEGI (Bera) • Doinua: 90 urte
Baztan-Bidasoko 29. Bertsopaper lehiaketan 1. saria (11-14 urte)

Bizi berri baten bila

| | |
|--|---|
| <p>Etxean sumatzen genun nahiko egoera zitala gauzak okertzen zirenez denbora pasatu ahala gerta ezina zen hori bihuru zen erreala herrian jarri zitzaigun erabateko itzala Gaur Europa dut helburu bertze hainbertzek bezala bidea gogorra dugu beldurgarria, makala hankak erdi-hilak ditut ta kiskalita azala Baina aurrera egingo dut badakit ahal dudala.</p> | <p>Gordeka ailetu nintzen ezin hartuz atsedena leku hontan naizelako inorrek nahi ez duena gaur ez didate eman nahi libre izateko baimena nahiko ulertezina da europar hauen sistema gauzak saltzen ditut plaza ta kaleetan barrena txanpon pare bat lortuta mantenduz itxaropena gustura egin nahi nuke etxerantza itzulpena Europa ez baita neri erakutsi zidatena.</p> |
|--|---|

esperuan egoten gare-lako bai betizuekin eta bai herri-kiroletako saioarekin. Zuen ilusioa, gogoia eta lana bereziki eskertu nahi dugu.

Igantzikoko dantzari, txistulari, gaitero, erraldoi eta buruhaundiei: zuen musika eta dantzekin momenturik goxo eta alaienak eskaintzeagatik.

Igantzikoko Gurasoei: zuen laguntza ezinbertzekoa da gaztetxoek bere lekua emateko. Eskerrak asko zuen txoko polit horretan denoi ongi etorria emateagatik.

Igantzikoko Biltokik eta Biltoki-Ttikik ere ekinguzen antolamenduan lagundu dute. Zuentzat ere gure eskerrik beroegatik.

Eta, partikular modura lagundu duzuenoie (ardiak, belagiak uzten...) Artzai-zakur lehiaketa burutzea posible egiteagatik.

Ez dugu inor atzenu du nahi. Herritar guzietan, zuen modura, lagundu duzue eta besta eder batzuk ospatu ditugu.

Denei bihotz-bihotzez, milesker.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

USOA Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 ETXALAR

KALEFAKIZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
ETXEZ ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ENEEK
Inskripzio Zenbakia 1435

KAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean) 31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETA
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

ERREKALDE OSTAJUA

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK

TFNOA: 948 630 259
BERA

ERKUDEN MAZKIARAN GOIKOETXEA
ARKITEKTO TEKNIKOAK

IEE edo eraikinen ebaluazio txostenak egiten ditugu

BEHEKO BENTA, 7 - 31800 ALTSASU
T. 626 700 972

Prentsatik bildutakoak



«Krimena ez zen politiko izan, baina ikerketa ixtea erabaki politiko bat izan zen. Ez zu ten konpondu, nahi izan ez zutelako. (...) Ez ziren lau bakarrik izango, baina 80 urte pasa dira. Ez ditugu kontoak eskatu nahi, zauriak itxi nahi ditugu. Emakume bat hurbildu zitzaion gure izeba bati, eta barkamena eskatu zion. Esan genion ez zuela hori egin beharrik».

Mari Tere ARIZKORRETA
Sagardia-Goñi sendia
BERRIA 2016.10.13

«[Gorpuzkiak] Gaztelun gera daitezela nahi dugu. Gaztelun jaio ziren eta Gaztelun hil ziren, beraz, han geratu behar dute. Donamari-ko Udalak hobi bat gorde du familia sartzeko, eta lur emate bat egiteko asmoa dugu. Hiletaren bati buruz ez dugu hitz egin, ziurrenik ez dugu egingo. Omenaldi zibil bat egingo diegu hilerrian lur ematerakoan, baina ezer gehiago».

Mari Asun LOSADA
Sagardia-Goñi sendia
BERRIA 2016.10.13

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zeniguke zure burua?

12 urte zituenetik Goizuetan bizi ez den goizuetarra bezala.

Goizuetan sortutako arantzarra ala Arantzan bizi den goizuetarra?

Arantzan bizi den goizuetarra sentitzen naiz, tamalez gehiegi joan ez arren.

Xapoak beti xapo?

Beti. Eta hori asko zaintzen dut. Arantzar hizkera oso kutsakorra izanik goizuetar hizkera mantentzen saiatzen naiz, lagunaz aparte, Goizuetara lotzen nauen lokarria baita.

Donostiako hondartza ala

Goizuetako eta Arantzako mendiak dituzu nahiago?

Ezin aukeratu! Oroitzapen goxoak ditut Donostiako hondartzaz, Goizuetara eta Arantzako mendietaz eta, nola ez, nire haurtzaro/gaztaro-ko Ibero errekez.

Igo duzuz mendi-rik gustukoena?

Bisaurin, bertan konturatu bainintzen bu-ruak zenbateko indarra duen.

Eta gustura eginen zenukeena?

Balerdi. Amaren sortuetxetik (Gaintza - Nafarroa) ikusgarria den mendia.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Daukaten denbora libre ttikia Arantzako mendi zoragarriak begiratzen ematen dut, zenbait goiz edo ilunabarrak zoragarriak dira!

Guraso Elkarteak diruzaina... Diru kontuak ala gurasoak dominatzea da errazagoa?

«Gibelera» eta «aintzina» hitzak erabiltzen ez dituzten bitartean..., dena kontrolpean!

Nora bidaiatuko zenuke gustura?

Korsikara. Mendi buelta baten ondoren itsasoan bainatzearen ideia tentagarria egiten zait.

Astebururako planik ederrena?

Hurrez eta senarraz gozatzea ordulariaren menpe egon gabe.

Zer behar duzu zoriontsu izateko?

Nere lagun baten aholkua jarraituz, nere burua maitatu.



Maite LUJANBIO → Goizuetarra

sarobe
gozotegia okindegia

p^o de eztegarra 25 bajo
31780 Bera (navarra) t.948 63 0899
www.sarobe.net

JOKIN PASTOR ARRIAZU
- Arkitekto teknikoa -

IEE edo Eraikinen ebaluazio txostenak egiten ditugu

T. 661 847 107 / 948 637 028 | jokinpastor12@gmail.com

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
TIP. 948 625 474 BERA NAFARROA

Goieko DESINBERA

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK • DESINSEKTAZIOAK • DESARRATOITZEAK

Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kuku...), eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitez! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

ARKUPEAK

IRTEERA → URRIAREN 5 ETA 6AN

98 bazkide joan dira Nafarroako Pirinioetara

Benidormeko bidaia 82 kidek egin zuten

Fernando ETXEBERRIA

Izena eman zutenen kopurua dela medio, 98 elkartekidek, bi talde-tan banatuta egin zuten Nafarroako Pirinioetako irteera. Lehenbiziko taldea, urriaren 5ean joan zen eta bigarrena urriaren 6an. Burgitik abiatu zuten bisitaldia eta gida baten laguntzaz, bertako sekretuak ezagutzeko aukera izan zuten. Ondoren, Erronkarrira joan ziren eta bertan Julian Gayarrerren mausoleoa ikusteko aukera izan zuten eta baita natura interpretatzeko zentroa ere. Bazkal aurretik mugaraino igo

ziren Belaguako errepi-dean barna eta Juan Pito jatetxean bazkari bikainaz gozatzeko aukera izan zuten. Eta bukatzeko arratsaldean, Burgiko Larra gasnategia bisitatu zuten.

Benidormen xarma

Urriaren 4an, 82 bazkide joan ziren Benidormera, 14 egunez bertako hondartzetaz gozatu eta atsedean hartzeko asmotan. Aurten bidaiari kopurua handitu zen eta eskariari erantzun ahal izateko hirugarren hotel bat hartu behar izan zen. Hala, ohikoak diren Fenicia eta Poseidon hotelez gain, Fiesta Park hotelean ere hartu zuten ostatu. Azken hotel honen, instalazio egokiak



zituen baina hondartzatik nahi baino urrutiago zegoen eta dezenteko aldapa igo beharra zen.

Eguraldia lagun izan zuten eta egunero 24 eta 28 gradu arteko tenperaturak izan zituzten. Dena den, euria ere egin zuten egun pare batez.

Benidormeko txokoak ezagutzeaz gain irteerak ere egin zituzten

inguruko herrietara: Calpe, Altea eta Valentiara.



Ba al zenekien

Urriaren 27an 18:00etan Adinekoentzako elikadura egokiari buruzko hitzaldia eskainiko duela Josetxo Ruiz Lopetedik, Iturengo farmaziako arduradunak, Arkupeaken egoitza.

ARKUPEAK TALDEKO ARTISTAK

Literatura, argazki eta margo lehiaketako sariak eman dituzte

F. ETXEBERRIA

Literatur lehiaketan poesia edo narrazio lanak aurkez zitezkeen, euskaraz zein gaztelaniaz. Euskarazko lanetan, Pakita Mikelarena izan da irabazlea bi kategorietan *Aitaren Ohorez* poesia eta *Xaldi* narrazioarekin. Gaztelarazko lanen artean berriz, poesian, Blanca Bertzen *Cuando el corazón escribe* lanak jaso du lehenbiziko saria eta narrazioan *Resistiré por amor* lanarekin bigarren izan da. Narrazioan lehenbiziko saria berriz, Pako Pascualek lortu du *Siempre amigos* lanarekin.

Argazki lehiaketan, Blanca Bertzen *Borda* argazkia izan da irabazlea eta Fernando Etxeberriaren *Pilota ala dantza* argazkia bigarren izan da.

Pintura eta margo lehiaketan, Alexandro Pozzik irabazi ditu bi sariak *Azpillkuetako ikuspegia* *Apaoatik* eta *Bergarako baserria (Baztan)* lanekin, hurrenez hurren.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ttutturera mendi irteera

Leitzako taldeak antolatutik, 26 mendizale bildu ziren urriaren 18an Aralarko Guardetxeko aparkalekuan, Ttutturera bidean. Lehenbizi Belokira igo eta bertan gosalduta zuten eta Ttutturera igo ondotik ere indarrez zeudenez, Txorrotxetako kaskora ere joan ziren. Lau ordu eta erdiko ibilbidearen ondotik, Mugioko Ostatuan bazkaldu eta indarrak berreskuratu zituzten. Hurrengo ateraldia azaroaren 22an egingen dute Hondarribia inguruan, Irun-Hondarribiko taldeak antolatuta.

KULTURA → AZAROAREN 17AN JASOKO DU DONOSTIAN

Euskadi Literatura Saria lortu du Fernando Mikelarenak

Gaztelerazko saiakera saria irabazi du, 'Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936' liburuarekin

pieza política en Navarra, 1936 liburuarekin.

Epaimahaiaren ustez, «ikerketa sakon batetik abiatuta, gizartearen sentsibilitatea hunkitzen duen gai baten inguruko hausnarketarako gonbidapena egingen du saiakerak». Modu berean, «lan honek memoria historikoa berreskuratzeari balioa ematen diola» onartzen dute, «isildutako iragenera sarbidea emanez».

Sari hauen garrantzia azpimarratu du Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura, Hezkuntza eta Gaztedia sailburuordeak, eta sariak epaimahai profesionalak ematen dituztela nabarmendu du.



ARGAZKIA: D. NOTICIAS
Fernando Mikelarena historialaria, bere azken liburua aurkeztu zuenean.

TTIPI-TTAPA

Euskadiko Literatura Saria entzutetsuak jakinarazi ditu Eusko Jaurlaritzak eta horietako bat, Fernando Mikelarena Peña historialari beratarak lortu du. Hain zuzen ere, gaztelerazko saiakera saria irabazi du, Pamiela argitaletxeak argitara eman duen *Sin piedad. Lim-*



Ba al zenekien

Solaslaguna aurkezpen solasaldia urriaren 28an, ortziralean 19:00etan egingen dela Beralandetan. Ondotik, pintxo poteoa egingen dute.

HILAREN 4, 11 ETA 19AN

XVIII. Kafe-Antzerki Zikloan hiru emanaldi

Berako Euskara Batzordeak, Kultur Batzordearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako Kafe-Antzerki Zikloaren hemezortzigarren edizioa azaroaren 4an, ortziralean 10etan abiatuko da Errekalde ostatuan, Nomofobikak taldearen *Sarean kateatuak* ikuskizunarekin.

Azaroaren 11n, ortziralean 10etan Ikuilu ostatuan *Putinen gurdasola* antzezlanaren aurkeztuko du Xentimorik gabe taldeak eta azaroaren 19an, larunbat arratseko 8etan, Bazen behin clown taldeak *Sexijen-tziak askatuz* taularatuko du Lixoia Ostatuan. Emanaldi guztiak doan izanen dira.

FLASH

Emakumeen bertso saio musikatua

Ez da kasualitatea bertso saio musikatua eskainiko dute urriaren 29an, larunbatean 20:00etan Kultur Etxean. Alaia Martin, Amaia Agirre, Jone Uria eta Oihana Iguaran ariko dira bertsoetan, Ainhoa Aranburu gai-jartzaile eta Gari Otamendi eta Ixak Arruti musikari. Kultur Batzordeak eta Euskara Mankomunitateak antolatuta dute ekitaldia. Sarrera 3 euro.

Goitibera jautsiera

Berako I. Kuadrillen Goitibera Jautsiera egingen dute urriaren 5ean, Mitxinborda eta Matzada artean 10:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 19:30era.

Autodefentsa ikastaroa

Goldatz emakume taldeak antolatuta autodefentsa ikastaroa egingen da azaroaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era Beralandetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bidasoaldeko gazteen txirrinda martxa

Beratik abiatu eta Azkainerako txirrinda martxa egin zuten gazteek urriaren 15ean. Azkaingo Gaztetxearen 9. urteurrena gogotsu ospatu zuten.

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ALBERTO RETEGI

abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

xirgil
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Ikastolako guraso, ikasle eta irakasleek BIANAN parte hartu zuten lekuko aldaketa ekitaldian.

GIZARTEA → AITOR IRATZOKI ZUZENDARIAK ETA AMAIA LASHERAS PRESIDENTEAK JASO DUTE BIANAN

Nafarroa Oinezaren lekukoa hartu du Tantirumairu Ikastolak

2017ko edizioa herrian egingen da urriaren 15ean

Aitor AROTZENA

2016ko Nafarroa Oinez ospatu zen urriaren 16an BIANAN *Hartu, tenka, tira* leloarekin eta guztiz arrakastatsua suertatu zen. Txanda pasatzeko unea iritsi zaie eta datorren urteko Oinezaren antolatzailea izanen den Tantirumairu Ikastolaren eskuetan jarri zuten antolakuntza -ren lekukoa. Amaia Lasheras lehendakariak eta Aitor Iratzoki zuzendariak, txalo artean jaso zuten ardura, Erentzun Ikastolaren atarian ospatutako ekitaldian.



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Aitor Iratzoki eta Amaia Lasheras, lekukoarekin gogotsu.

Iratzokik erran bezala, lesakarrentzat «ohore handia» izanen da 2017ko Nafarroa Oinez antolatzea: «Ikastolen eta euskararen aldeko auzolan erraldoia izanen da», azpimarratu du. Ilusio handiare-

kin jaso dute lekukoa lesakarrek. «Badakigu erronka handia dela baina tamaina horretako ilusioarekin hartzen dugu ardura. Denon artean, soka hartu eta tiratu egingen dugula ziur gaude».

BIGAREN ALDIZ

Lesakarrek 1988ko urriaren 9an ospatu zuten lehen eta orain arteko azken Nafarroa Oinez, *Euskaraz bizi, euskaraz* hezi lelopean. Hainbat urtez legezatu gabeko egon ondoren, ordu-ra arteko egoitzak ez zituelako beharrezko baldintzak betetzen, urte hartako bestaren irabaziekin ikastetxe berria irekitzea ahalbidetu zen.

Heldu den urterako lanean hasiak dira gaurgero hainbat batzorde ezberdinetan. Azaroan egingen dute 2017ko Nafarroa Oinezaren aurkezpena, lehenik Iruñean eta gero Lesakan egingen dituzten ekitaldiekin. Bertan aurkeztuko dituzte helburuak, leloa eta logoa.

FLASH

Haizea eta Ura dokumentalaren aurkezpena

Organo Musika Nafarroan Zikloaren baitan *Haizea eta ura* dokumentala aurkeztuko dute San Martin elizan urriaren 29an, larunbatean 18:00etan. Jose Luis Echechipía dokumentalaren produktore artistikoa eta Pablo Cepeda, Bizkaiko Soinuan emanaldiaren zuzendari artistikoa izanen dira hizlari.

Seme-alaba nerabeak dituzten gurasoendako solasaldia

Seme-alaba nerabeak: Zailtasunak eta erronkak solasaldia eskainiko du Yolanda Gonzalezek Harriondoa Kultur Etxeko Txokobiko aretoan, urriaren 28an, ortziralean 18:00etan. Dasya Yoga Zentroak antolatu du hitzaldia.

I. Tren Txikito lasterketa igandean

Udal Kiroldegiak lehen aldiz Lesakako Tren Txikito antolatu du urriaren 30erako. Korrikalariek hiru ibilbide izanen dituzte aukeran: 6 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun), 12 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun-Lesaka) eta 17 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun-Harkaitzako iturria-Lesaka). Izen ematea www.kirolprobak.com webgunean egin daiteke.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Burrutana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

A, B eta C motako **GASOLIOA** ETXERA
24 ORDUZ

Bidasoa
GASOLINDEGIA

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

BEKO

LÖREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 5ERAKO

25. urteurrena ospatzeko egun berezia antolatu du Altxatak

‘Bi Poliedro’ emanaldia, Xabier eta Aner Euskitzerekin kantaldia eta bertso afaria izanen dira

Irune ELIZAGOIEN

1991. urtean sortu zen Altxata kultur elkarte. Ordutik herriaren alde lanean eta Etxalartarrentzat ekitaldiak antolatzen aritu da etengabe urtez urte. Aurten 25. Urteurrena ospatzeko, egun berezi bat antolatu dute Altxata elkarteak azaroaren 5erako. Arratsaldeko 7etan *Bi Poliedro* emanaldia izanen da Elizan, Aitor Furundarena eta Garikoitz Mendizabalen eskutik. Jarraian Xabier Euzkitze eta Aner Euzkitze aita semeek kantalditxo bat eskaini-

ko dute. Sarrera doan izanen da. Baina besta ez da hemen bukatuko; eguna behar bezala borobiltzeko bertso afaria izanen da Herriko Ostatuan Onintza Enbeita eta Jon Maiarekin. Txartelak herriko ostatuan egonen dira salgai (25 euro) edo bertzela 697397567 telefonoan eskatuta. Afalondoan trikitilariak izanen dira.

2017rako etxeko su egurra

Bertze urte batez, etxeko su egurra eskatzeko epea zabalik dago urriaren 31a arte. Epe hau pasata zuhaitzen markazioa egingen da eta jarraian loteen zozketa. 5 tonako loteak 50 euro balio du eta 10 tonako loteak 100 euro. Lotea eskatzerakoan 10 euro ordaindu beharko dira eta egurra prestatzeko lanen kostea ere eskatzailearen gain joa-



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Giro ederrean joan zen Usategietako Igandea

Eguraldi ederra lagun, jende aunitz ibili zen urriaren 16ean Etxalarren. Goizean sareak jarriak zeuden baina haize handia zebilenez ez zen usorik sareetan sartu. Arratsaldean jende andana hurbildu zen plazara.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko trikitilariak Arbizon

Urriaren 9an Nafarroako Trikitixa Eskolen arteko I. trikitixa jaialdia egin zen. Lesaka, Zizur, Olazti, Berriozar, Lekunberri eta Arbizukoekin batera Etxalarko trikitilariak ere saio bikaina eskaini zuten.

nen da. Udala arduratuko da lotea atera eta eskatzaileak errandako lekura eramateaz. Martxoaren 31erako lan honen eginda beharko du.

Ba al zenekien

Pastoralak hobeto ezagutzeko, Joxemiel Bidador pastoralaren proiektioa izan zela Kultur Etxean urriaren 14an.



SALMENTA

Nekazarien Etxea - Urdanibia Plaza, 7 - IRUN
Cooperativa del campo - Olaberria auzoa - IRUN
(Trinkete Borda jatetxetik kilometro batera)

PIPER ERREEN SALMENTA LARRAGAKO PIPERRAK

(Irunen erretzen ditugu)

- Momentuan erretzen ditugu
- Kontserban nola ipini erakutsiko dizugu
- Nahi izanez gero guk egindakoak eros ditzakezu
- Barietateak: pikillo, Najerano, kristal, piko-Medavia

Tel. 645 636 614
948 040 094
648 260 137

Zure eskaera etxera eramango dizugu

Astelehenetik ortziratera: 08:30-13:00 eta 16:00-19:30
Larunbata: 08:30-14:00

ARANTZA

KULTURA → KULTUR EGUNAK

Anje Duhaldek kantaldia eskainiko du urriaren 29an

Urriaren 29tik azaroaren 1era kultur egunak izanen dira

Nerea ALTZURI

Urtaro honekin batera, kultur egunak antolatu ditu Euskara Batzordeak.

URRIAK 29, LARUNBATA

- 12:00etan Baskulan: **Aitziber Almandozen Su galduaren bila ipuinaren aurkezpena.**
- 20:00etan eskolako gimnasioan edo aterpe berrian: **Anje Duhalderen kantaldia.** Ondotik, **opilak** Gure Esku Dago dinamikaren baitan.

URRIAK 30, IGANDEA

- 16:30ean eskolako gimnasioan: Niala **magoa**ren haurrentzat.
- 17:30an eskolako gimnasioan: **berendua.**
- 18:00etan Ekaitza Elkartearen **mus eta partxien txapelketak.**

URRIAK 31, ASTELEHENA

- 10:00etatik 13:00etara Baskulan: Arantzan 1943an eroritako gerra hegazkin alemaniarrari buruzko **erakusketa.**
- 20:00etan eskolako gimnasioan **hitzaldia: Bortzirietan erabakitze-ko eskubidea? Gure esku dago!**

AZAROAK 1, ASTEARTEA

- Goiz osoan **Baserritarren Eguna** plazan eta frontoian.
- 10:00etatik 13:00etara Baskulan: Arantzan 1943an eroritako gerra hegazkin alemaniarrari buruzko **erakusketa.**

XXI. Baserritarren Eguna


Azaroaren 1ean, herriko plaza eta frontoian herriarrek beuren produkturak, nekazal tresnak, eskulanak edota azienak ikusgai edota salgai paratuko dituzte. Ekaitza Elkarteak antolatuta, gazta eta ahari lehiaketak ere



UTZITAKO ARGAZKIA

Sukaldari gaztetxoak Basque Culinary Centerren

Martikoren 30. urteurrenaren harira, Txiki Chef lehiaketa egin dute, eta honen finala urriaren 7an jokatu zuten Donostiako Basque Culinary Centerren. Bortzirietako 58 bikotek parte hartu dute lehiaketan eta Arantzako talde batek finalera sailkatzea lortu zuen: argazkia ageri diren Oskitz eta Suhari Madariaga, Mikel Izagirre eta Gaizka Zulaikak, hain zuzen. Zorionak laukote!



ARGAZKIAK: XABI ZUGARRAMURDI

Udazkeneko koloreak

Udazken koloretan daude inguruak eta mendi gainak. Aro ederrarekin batez ere, ondoetan, mendian, ehizean... mugimendua nabaria da.

izanen dira eta ostatu Guraso Elkarteak kudeatuko du. Aurten berritazun bat ere izanen da. Salmentako postuen ko-

kapenabezperan, urriak 31, zozketatuko delako. Zozketa publikoa izanen da eta 18:00etan egingen da Ekaitza Elkartearen.

Zozketa ondotik, postuetako mahaia den artean paratuko dituzte. Egunean bertan, frontoia 08:00etan irekiko dute.



armadenda

andueza



Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

GIZARTEA → URRIAREN 17TIK AZAROAREN 12RA

Denok Bat Federazioak Udazkeneko kanpaina abian jarri du

Egunero 30 euro eta astero 200 euroko opari-txartela jasotzeko aukera

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako komertziantek biltzen dituen Denok Bat Federazioak udazkeneko promozio berri bat egingen ari da urriaren 17tik azaroaren 12ra. Uda-berrian egin zuen gisa

berean, Denok Bat Giltzaria txartelarekin erosketak ordaintzen dituztenen artean egunero 30 euroko opari txartela zozketatuko dute eta astero 200 euroko opari txartela.

DenokBat Giltzaria eskaintzen duten edozein saltokitan erabiltzen ahal dira opari txartel hauek, azaroaren 19ra bitarte.

Eguneroko zozketa goizean lehenengo orduan egingen da. Zozketa honetan, aurreko egunean DenokBat giltzariarekin eragiketa bat



UTZITAKO ARGAZKIA

Txiki Chef lehiaketa egin dute Martikoren 30. urteurrenean

Martiko enpresaren 30. Urteurreneko ekitaldien baitan, Txiki Chef lehiaketa egin dute Bortzirietako ikastetxeetan eta urriaren 7an jokatu zuten finala Donostiako Basque Culinary Center-en sukaldeetan. Bortzirietako 10-16 urteko neska-mutikoei parte hartu dute lehiaketa honetan, 58 taldetan banatuak. Lehenbizi bakoitzak bere ikastetxean egin zituen Martikoren produkturen bat izan behar zuten errezetak eta lehen galbahea pasatuta, zortzi talde lehiatu ziren finalean.

egin duten bezero guztiak parte hartuko dute. Asteroko zozketa, berriz, astelehen goizeko lehen orduan egingen da, urriaren 24an eta 31n eta azaroaren 7 eta 14an. Zozketa honetan, aurreko astean Giltzariarekin eragiketa bat egin duten bezero

guztiak parte hartuko dute.

Opari txartelen irabazleei telefonoz deituko zaie. Irabazleak, telefonoz errandako saltokira joan beharko du eta bertan opari txartela kanjeatzeko kode bat emanen zaio. Argazki bat ere aterako zaio ira-

bazi duen opari txartelarekin. Opari txartela ezin da inolaz ere diruz trukatu.

Egunero, DenokBat federazioa osatzen duten elkarten facebook-etan eta DenokBateko web-orrian, irabazleen izenak eta argazkiak argitaratuko dira.

ostargi optika

20 urte bete ditugu eta zuekin ospatu nahi dugu

Mila esker urte hauetan gure ondoan egoteagatik!



Gabonak arte egiten diren erosketen artean sari zoragarri bat zozketatuko dugu.

Bidasoa, 8 - BERA
T. 948 630 753

SUNBILLA

KIROLA → AZAROAREN 4TIK 6RA

Kobukai Nazioarteko Batzarra eginen dute frontoian

Arte martzial ezberdinak praktikatzen dituzten kirolariak bilduko dira azaroko lehen aste hondarrean

Maider PETRIENA

Gure inguruan gero eta indar gehiago hartzen ari da Kenpo-kai kirola. Bada Kenpoaz gain, Jujutsu, Karate, Kobudo, Aikido, Judo, laido eta Kenjutsu arte martzialak bilduko dituen Kobukain International Convention batzarraren Sunbillako udal pilotalekuan eginen dute azaroren 4tik 6ra.

Guraso Elkarteak lehen bilera

Ikasturte hasiera guztietan bezala Guraso elkartearen bilera izan zen urriaren 10ean. Bertan hainbat gai ezberdin landu ziren arren, garrantzizkoena, guraso elkartearen juntako bi kideren aldaketa izan zen. Bi urte egon ondoren Rakel Urtxegi Gelbenzu eta Koro Zelaia eta Errandonea atera ziren eta boluntario Amagoia Gragirena Oteiza eta Juan Tomas Latasa Mitxeo sartu ziren. Be-

raz orain guraso elkartearen junta honela osatua gelditzen da: lehendakaria Juan Tomas Latasa Mitxeo, lehendakariordea Ana Gartxitorena Arraztoa, idazkaria Estitxu Arretxea Rodriguez eta bokalal Amagoia Gragirena Oteiza eta Joseba Garzia Agesta.

Ulibeltzak elkartearen batzar orokorra

Urriaren 15ean Ulibeltzak Elkartearen batzar orokorra egin zen. Gai andanaz hitz egin zen. Bi bazkide berri sartu dira, 2016ko bestetako kontuak aurkeztu zituzten, 2017ko bestetako proposamenak ere, Elkartearen besta egiteko proposamena ere aurkeztu eta onartu zen eta, akitzeko, beti bezala eskariak eta galderak. Bilera gehienetan bezala, nahiko bazkide gutti elkartu ziren.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jarduerak jada zehaztuta daude eta hauek izanen dira: pandereta, trikixia, kenpo-kai, helduendako soinketa, pintura, mekanografia, eskulanak, dantzak... Guzti hauetarako frontoia eta eskolako gelak erabiltzen dira.



UTZITAKO ARGAZIAK

Eneko Herrera Uztarrotzeko Duatloian

Eneko Herrerak aurtengo lehen duatloian parte hartu duela Uztarrotzen. Lehenik 5 kilometro lasterka, ondoren 24 mendi bizikletarekin eta azkenik 1, 3 kilometro berriz ere lasterka. Aipatuko dugu 25 urtez azpikoen artean 3. postua lortu zuela eta hemendik zorianik beroenak. Kirol kontuekin segituz, bere anaia Koldo jo eta ke dabil bizikletarekin Diario de Navarra egunkariak antolatzen duen Openean parte hartzen. Guztira 9 karrera ditu eta jadanik 5 eginak ditu. Urriaren 9an Muniainen laugarren postua lortu zuen eta 16an berriz Logroñon hirugarren postua. Zorionak eta segi beti bezain indartsu. Azkenik, Donostian egin zen hiru hondartzen arteko lasterketan 3 sunbildar izan zirela parte hartzen: Xanti Manterola, Jon Maritxalar eta Bixente Ibarra. Hauei ere zorionak.

Baztango Dantzariekin hiru sunbildar Ezpeletan

Baztango Dantzariekin urriaren 8an emanaldi polita eskaini zuten Ezpeletan eta beraien artean hiru Sunbildar genituen: Mikel Arrieta, Eneko Herrera eta Itsaso Arrieta.

Ba al zenekien?

Argazkian ageri den onddoak 1,285 kilo pisatzen duela. Juanjo Petriena Murugarrenek topatutakoa da.



GIZARTEA → IRAILAREN 18AN DONEZTEBEN

Komertzioetan produktu ekologikoak saltzeko kanpaina abiatu du CPAEN Kontseiluak



TTIPI-TTAPA

Nafarroako Nekazaritza Produktu Ekologikoen Kontseiluak (CPAEN-NNPEK) erosketan ekologikoa erosoago eta hurbilago egiteko kanpaina berri bati ekin dio. Gaurgero, 50 saltoki baino gehiagotan topa daitezke produktu ekologikoak, osasungarriak, hurbilak eta jasangarriak, baina kanpaina honekin, komertzio gehiagok bat egitea nahi dute.

CPAEN-NNPEK-en ekimen honekin bat egiteko aski da komertzio horrek guttienez 10 produktu ekologiko eskaintzea. Denda bakoitzaren sailkapena ere eginen du Kontseiluak, Urrezko, Zilarrezko edo Brontzezko izanen baita kategoria, salgai dituen produktu ekologikoen kopuruaren arabera. www.cpaen.org webgunean eskura daitezke informazio xehea.

Salmenta puntu hauek identifikatzeko irudi bat sortu du CPAEN-NNPEK Kontseiluak, alde batetik erosleek jakin dezaten non eros ditzaketen elikagai ekologikoak eta bertetik, Nafarroan elikagai hauek saltzen dituzten dendei ikusgarritasuna emateko. Gaurgero 57 komertzio bat egin dute ekimenarekin. Hori-oren artean, bi eskualdekoak dira: Leitzako Bellarra belar-denda eta Elizondoko On Egin eko-denda.



Multi-lasaitasun aseguratua

Batasunak indarra dakar



Elkartu zure Aseguruak eta eskuratu *opari gisa 700€-ra bitarte*

| | | | | | | | | |
|---|--|---|---|---|---|--|--|---|
|  Etxea |  Autoak |  Istripuak |  Bizia |  Hortzak |  Osasuna |  Merkataritza |  Ezintasuna |  Heriotzak |
|---|--|---|---|---|---|--|--|---|



Eramazu Visa Opari Txartel hau azaroaren 30era arte



Sustapenak 2016ko irailaren 1etik azaroaren 30era arte bako du. Kontsultatu sustapenaren baldintzak sustapenaren oinarrietan, Rural Kutxa zure bulegoan baliatuz eskura.

DONEZTEBE

KULTURA → URRIAREN 15EAN BISITA DIDAKTIKOA ETA BERE LIBURUAREN AURKEZPENA EGINEN DU

Euskadi Literatura Saria lortu du Luis Garde idazleak

Bertze 5 idazlerekin parte hartuko du Udazken Literarioan

Marga ERDOZAIN

Luis Garde lortu du euskal literaturako Euskadi saria, *Ehiztariaren isilaldia* lanagatik. Azaroaren 17an jasoko du sari ospetsu hau San Telmo museoan ospatuko den sari banaketan.

Garderen lana 2015ean argitaratu zen eta bertan Ezkabako ihesaldia oinarritzat hartuta, orduko eta gaurko gogoetak lotzeko idatzi du.

Luis Garde idazlea izanen da, udazkeneko agendan murgilduta, 1. Udazken Literario Zikloko bakarkako lana aurkeztuko duena. Hitzordua urriaren 28an, ortziralean Herriko Ostatuan izanen da 20:00etan. *Ehiztariaren isilaldia* eleberriaz mintzatu da Garde.

Luis Garderen solasaldiaren ondoren, ber-



UTZITAKO ARGAZKIA

D. Martirena, I. Zubialde, A. Del Castillo, L. Garde, E. Badiola eta T. Arraztoa.

tze bortz hitzordu garrantzitsu badira: urriaren 4an Alicia Del Castilloren solasaldia (Baztango Gida, Dolores Redondoren eleberriak oinarri), 11n Tiburtzio Arraztoa laxoaren inguruko liburuetaz ariko da, 25ean Elixabet Badiolak bere bi eleberriz izanen ditu hizpide eta abenduaren 2an Izaskun Zubialde (haurrendako euskal mitologia liburuak euskaraz) eta 9an Dani Martirena (*Hankaz gora du amak mundua* liburua). Solasaldi hauek arratsaldeko 8etan Herriko Ostatuan izanen dira. Udazken ziklo emankor honen orbela hazitzat hartuko da heldu den urtean fruitu gehiago eman ditzan.

EZAGUTU GAZTEEN MUNDUA

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811

MUEBLES TELLETXEA ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

FLASH

Pintxoak zineman

Urriko azken asteburu luze honetan aipatu behar da bertako tabernetan ohiko eskaintzez gain, onddoz egindako pintxo goxoak dastatzeko aukera izanen dela. Hitzordua arratsaldeko 6:30ean, zinema aretoan.

Alemaniano abesbatza elizan

Azaroaren 1ean, astearte arratsaldeko 7etan Nafarroako Nazioarteko XXII. Ziklo Korala ekimenaren barrenean Alemaniako Ensemble Nobiles taldearen emanaldia burutuko da San Pedro elizan.

Zine denboraldia abiatuko da

Erreka eta Mendaur Guraso elkarteek zinema denboraldia martxoan paratuko dute. Azaroaren 4an hasita (16:30ean *Zootropolis*), 15 egunero bi emanaldiz gozatzeko aukera izanen da maizta arte. Txikienez 16:30ean izanen da eta gazte eta helduendako emanaldia 18:30ean. Bigarren emanaldiaren arduraren DBHko 4. mailakoek hartuko dute eta ikasbidaia laguntzeko erabiliko dute.



ARGAZKIAK: ETB

Oier Zulaika bikain Burubero saioan

Kike Amonarrizek aurkezten duen saioan parte hartu du Oier Zulaikak eta marka hauek utzi ditu: 18 saiotan ikusi dugu, 11 finalerara ailegatu da eta 6.700 euroko botea eskuratu du bigarren saioan. Aleka, aleka, sufrituz, gozatu, irri eginenez... zaku polita eskuratu du Zulaikak.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 7 ETA 8AN

Giro bikaina aurten ere Euskararen Egunean

Kattalin Paulek irabazi zuen pintxo lehiaketa eta Andrew Smithek argazki lehiaketa

Fermin ETXEKOLONEA

Beste urte batez, Zubietako gazteek antolatutako Euskararen Eguna giro ederrean joan zen. Urriaren 7an, pintxo lehiaketako irabazlea Kattalin Paul Juanikorena izan zen, ondoz eta piper berdez

beteriko hojaldre goxo batekin. Argazki lehiaketara aurkezturiko argazkiak bi ostaturan egon ziren ikusgai, eta bi egunez bozka emateko aukera izan zen. Irabazlea Andrew Smith izan zen, Zubietako laino-pean agertzen zuen argazki batekin.

Ostiral gauez, mus txapelketa izan zen, Azken Trena kontzertuarekin batera gauak aurrera egin zuen.

LARUNBATEAN HAINBAT EKITALDI

Biharamunean, artisaunen lan dezente ikus-terako parada izan zen,



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Euskararen Egunean, herri kirol proba konbinatuan parte hartu zuten gazteak.

egur lanak, ogia, piperopilak, taloak, jertseak, argazkiak, baserriko barazkiak eta urtero gazteek jartzen duten postua. Bertan apustu egiteko aukera zegoen, magra, gazta eta tomateen pisua asmatzeko. Magra, Ainhoa Elizalderi egokitu zitzaion, gazta berriz, Eva Elizalderi eta tomateak Aurtizko Marixux-i.

Txitxilua elkarteko postuan, aurten ere postre goxoak jarri ziren salgai, baita 2017rako egutegi berezia ere. Bertan bizi diren eta 14 urtetik beherakoekin argazkien

egutegia. Joaldun asko ere elkartu ziren, eta txikienek etorkizuna seguru dagoela erakutsi zuten. Eguerdian Muxikotak dantzatu ziren plaza eta ondoren bazkaria izan zen, Alaiia Martin eta Miren Alustiza bertsolariekin.

Arratsaldean, txokolate goxoa bizkotxoekin eta ondorengo txikien txanda izan zen karaokean. Ikuskizun polita prestatu zuten, eta txalo zaparrada ederra jasozuten beraien ekitaldiaren ondorengo.

Iluntzean Oharkabe taldearen eskutik dan-

tzaldia izan zen eta gazteen xingar pintxo ondoan, La Jodedera taldearen emanaldia entzun eta dantzatu ahal izan zen. Kasualitatez, talde honen abesti bat kantatu eta dantzatu zuten karaokean talde batek, eta partaide batzuk, beraien kantatu eta dantzatzeko ohorea izan zuten zuzenean oholtza gainean.

Hauen ondoren, Niarawa batukadak ere ikusmina sortu zuen eta goizeko ordu txikiak arte Oharkabe aritu zen jo eta ke jendea dantzan jartzen.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

BESTAK → AZAROAREN 10ETIK 13RA

Pilota partida eta herri bazkaria San Martin egunean Aurtitzen

Artisau azoka antolatu dute azaroaren 13an

Arkaitz MINDEGIA

San Martin besteta-ko egitaraua prest dute aurten ere Aurtitzen. Lau egunetan ongi pasatzeko egitarau zabalak egokitu dute.

ORTZEGUNA, AZAROAK 10 BEZPERA

- 17:00 Haur jokuak eta ondoren txokolatada.
- 20:00 Txupinazoa.
- Ondotik kalejira herriko trikitilari eta txistulariekin.
- 21:30 Zopak.
- 23:00 Mus txapelketa Abarun aterpetxean.
- Gaupasa herriko trikitilariak alaiturik

ORTZIRALEA, AZAROAK 11 SAN MARTIN EGUNA

- 10:00 Diana herriko trikitilari eta txistulariekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Besten hondar egunean dantza saioa eskainiko dute lbintza taldekoek.

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Pilota partidak: Elizalde-Apeztegia; Olaizola I-Otxandorena.
- 14:00 Herri bazkaria, Ander Lizarralde eta Iñaki Aleman bertso-lariekin alaitua.
- Ondotik Joxe Angel akordeoilaria.
- Gauez, dantzaldia Hauspolariet taldearekin.

LARUNBATA, AZAROAK 12 HAURREN EGUNA

- 10:00 Diana trikitilari eta txistulariekin.
- 11:00 Haurren puzgariak.
- 17:00 Mendaur eskolaren trikitixa jaialdia. Ondotik luntxa elkartean.
- 12:30 Ingo al deu? Taldearen kontzertua. Ondotik gaupasa Oharkabe taldearekin.

IGANDEA, AZAROAK 13 HERRITARREN EGUNA

- 10:00 Diana herriko trikitilari eta txistulariekin.
- Goizean: Artisau azoka.
- 13:00 Aizkora apostua: Palaxio - Erasun.
- 18:00 lbintza taldearen dantza emanaldia.
- Ondotik dantzari-entzatzat luntxa elkartean.
- 19:30 Dantzaldia TXA-

FLASH

Guraso Elkarteak berriro dute

Ikasturte hasierako bilera egin zuen Guraso Elkarteak eta bi urte-tarako boluntario aurkeztu dira Itsaso Torrecillas eta Aitziber Arana eta lehengo urtetik dauden Diana Martin eta Maite Lujanbiorekin osatuko dute taldea. Gurasoei zuzendutako lehenbiziko ikastaroa ere egin dute, urriaren 24an, *Lagun iezaiozu bere autostimua hobetzen* izenburupean.

Telebista saioa Iturenen

ETB1eko *Udazken lo-reak* saioa grabatzen egon ziren urri hasieran Ainhoa Baleztena eta Kepa Leiza herri-tarrek Mendaur magaleko mendietan. Azaroaren 10 aldera botako dute telebistan, erne ibili ikusi nahi baduzue.

MUKOS mariatxiek.

- 21:00 Herri afaria elkartean.
- Bestak akitzeko Gixajua Ni trikitilariet alaiturik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Trikidantz bertze urte batez Nafarroa Oinez laguntzen

Trikidantz taldeak kontzertua eskaini zuen Bianan ospatu zen Nafarroa Oinez bestan. Giro ezin hobea izan zen eta euskalzaletan andana bildu zen.

HERRIKO KIROLARIAK

Maika Ariztegi EHko txapel-dun eta Ander Erasun finalera

A. MINDEGIA

Emaitza onak lortu dituzte herriko bi kirolariak beraien azken konpromisoetan. Maika Ariztegi, bigarren aldiz Euskal Herriko ingude-jasotze txapelketa irabazi zuen, 93 jasoaldirekin. 2014an jokatu zen lehen aldiz Euskal Herriko emakumeen ingude jasotze txapelketa eta orduan ere txapel-dun izan zen Maika. Iaz, berriz, azpitxapel-dun.

Ander Erasun, berriz, Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren finalean izanen da urriaren 29an, larunbatean 18:00etan Azkoitiko pilotalekuan. Informazio zabalagoa kirol orri-aldeetan topatuko duzue.

GIZARTEA → GERRA ZIBILEKO GERTAKARIA

Sagardia-Goñi familiaren hezurdurak argitara atera dituzte

Orain gorpuzkinak laborategira eramane eta informe teknikoa egiten du Aranzadik

TTIPI-TTAPA

Ikusmin handiz atarazituzten urriaren 12an Legarrea leizetik duela 80 urte hara botatako Juana Josefa Goñi eta bere sei seme-alaben azken hezurdurak. Aranzadiko Pako Etxeberria eta Lourdes Errasti aritu ziren zeregin hori



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Aranzadikoek egindako indusketa lanek ikusmina piztu zuten.

koordinatzen, eta azaldu dutenez, orain gorpuzkinak laborategira eramane eta informe tekniko bat egiten dute "egia ofiziala" jakin dadin.

Bertan ziren Sagardia-Goñiren oinordekoak ere. Orain jakin nahi dute 1936ko gerraren testuinguruan eginda-

ko krimen honen gibelean zer arrazoi egon zitekeen.

Behin prozesua akintuta, familiak Donamaria-Gazteluko udalak hilerrian utzitako toki batean lurperatuko ditu berriz hezurak eta hileta zibila egiten diete Juana Josefa Goñiri eta bere sei seme-alaberi.

Paco Etxeberria mediku forentse ezagunak aipatu duenez, lur azpian 50 bat metrora egin dute lana, iristeko zaila den eremu batean.

Familiako kide guztien hezurdurak ez ezik, haurren oinetakoen kautxoak ere topatu dituzte, baita botoiaren bat ere.

SALDIAS

KULTURA → URRIAREN 29AN ELIZAN

Larunbat honetan, kantuaren suari aspua

Malerrekako Euskara Zerbitzuaren Kultur Ibilbidearen barnean

Markel LIZASOAIN

Malerrekako Mankomunitateak urtero antolatzen du urriroan Kultur Ibilbidea esaten diena: lau herritan ikuskitzuzunak izaten dira, gure hizkuntzari indarra emateko. Aurten Saldisa ere sartzen da ibilbide horretan, eta, kantua bola-

dan baitago, bi emanaldi izanen dira elizan urriaren 29an, larunbatean 18:00etan. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

Lehenbiziko, lau zuberotar trebe ariko dira boz hutsarekin beren diskoko kantuak ematen: Jean Bordaxar, Jean Pierre Luro, Jean Noel Pinque eta Robert Larrandabürü. Gauzajakina da kantua Euskal Herriaren indarra galtzen ari den honetan Zuberoan dagoela indartsuen; ez alferrik kantatzen dute bere errepertorioan «gure berezitarzuna

badaki Uskal Herriak: Xiberuan badirela herri orotan kantariak».

Bigarren emanaldian, Amaia Zubiria eta Edorta Amurua ama-semeak ariko dira. Edortak gitarrarekin eta bozarekin lagunduko dio gure lurretan ospe handia duen kantariari. Lizardiren gerra aurreko harako poema hartan ipuinekin egiten den gisan, Amaia aparteko lana egina du kantu zaharrak bilitzen eta berriro hauspotzen, emakume kantari entzat bereziki zaila izan den garai batean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Amaia Zubiria eta Edorta Amurua ama-semeak goian eta Zuberoako kantariak behean.

EZKURRA

PARTE-HARTZEA → URRIRA ARTE

Santa Kruz ermita konpontzen ari dira boluntarioak

Udaberrian guztiz berrituko dute

Fernando ETXEBERRIA

Aurreko aldizkarian aipatu genuen Santa Kruz ermitan ezbeharrak gertatu zela, itoginen ondorioz sabai aizuna erori (teilatua ez) eta aldea ondatu baitzen. Duela gutxira arte ez genekien segururik nor zen ermitaren jabea. Orain, egiaztatu da Udalaren izenean dagoela. Hori ikusita, herriko zazpi boluntarioek ermita kon-

pontzeko lanak hasi dituzte. Hondakinak atera eta ermita txukundu dute oraingoz, egitura-ko kalteak konponduz. Udaberrian guztiz berritzeko asmoa dute.

Egur loteak

Pixkanaka hasiak dira egur loteak banatzen. Aurten, pista bat ireki behar izan da Pilota Sorron Kastenea borda ondoan dagoen basora joan ahal izateko. Elezaharrak dio artzainek bertan pilotan jolasten zutela herrira jeisterik ez zuten sasoiaren.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Lana gogotik egin eta gero, bikain gelditu da Santa Kruz ermitaren sabaia.

Uso eta onddoak

Eguraldi aldaketari esker, onddo aunitz atera da azken aldian eta

gustura ibili dira mendian afizioa dutenak. Tartean batzuk 60 kilo bildu omen dituzte. Uso

ehiza berriz, motelxeago doa, baina egun batetik bestera alda liteke zortea.

KULTURA → 30 IKASLE GUZTIRA MALERREKAN

Gaztetxoan 4 bertso eskola osatu dira

Estitxu Arozena dute irakasle

Marga ERDOZAIN

Ikasleei eskola orduz kanpo bertsogintza eta ahozkotatuta lantzen segitzeko proposatu zaie eta matrikulazio kanpainak emaitza onak utzi ditu. Ikasturte honetan 4 bertso eskola osatu baitira, 30 bat ikaslerekin (Donezteben bi: San Migel ikastetxe-

an eta Mendaur Institutuan, Sunbillan eta Legasan).

Irailetik otsailera arte Hezkuntza Arautuan Donezteben, NARBARTEN eta Iturenen eman den *Bertsolaritza Irakas-kuntzan* programa akituta, dauden bertso eskolak indartu eta berriak sortzeko matrikulazio saiakera berri bat eginen da.

Estitxu Arozena irakasleak ematen ditu kla-



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Oliver Magoaren Showa Urroren Malerrekako Kultur Ibilbidean

Malerrekako Mankomunitateak antolatutako Kultur Ibilbidearen barrenean urriaren 15ean magia ikuskizuna eman zuen Oliver magoak Eva laguntzailearekin batera Urroren. Goizetik puzgarriak izan ziren eta arratsaldeko magia saioa ikustera, bertako haurrez gain, bertze herrietatik ere etorri zen jende mordoak.

seak, astean behin eta ordubetez, ekainera bitarte, guztira 30 arte osatu arte. Bertso-eskola hau bultzatzen eta zabaltzen Malerrekako Mankomunitatearen laguntza izan da, baita ekarpen ekonomikoa ere.

HELDUEI ERE ESKAINTZA

Euskara Zerbitzuak helduendako 10 orduko bertso ikastaroa ere antolatu du. Interesatuak bertako zerbitzuaren izena ematen ahal dute. Argibide gehiago behar duenak 948 451746

telefonora deituz (Eneko). Ikastaro honen helburua bertsogintzaren inguruko hastapeneko ikastaro trinko bat eskaintzea da. Apuntatzeko epea azaroaren 4ra arte zabalik egonen da.

OSPAKIZUNAK → ARAZOAREN 5 ETA 6AN

Umore Onak prest du Jubilatuen Asteburua


Azaroko lehen larunbatean, mus eta truk txapeketa eta igandean pilota, bazkaria eta dantzaldia izanen dute

TTIPI-TTAPA

Umore ona elkartek antolaturik, Jubilatuen asteburua ospatuko da: azaroaren 5ean, la-

runbata, jubilatuen tzako mus eta truk txapelketa izango da arratsaldeko 4etan. Eta igandean, azaroaren 6an, meza izango da goizeko 11etan. Ondoren, pilota partidua. 14:00etan bazkaria izanen da, 10 euroren truke. Eguna amaitzeko, dantzaldia izanen dute Ainhoa Zabaletaren eskutik.

Bazkarira apuntatzeko azaroaren 1a baino lehen izena eman behar da.



ARGAZKIA: A. SALABERRIA

Iker Salaberria, berriz txapeldun

Errioxako Gobernuak antolatutako hamargarren txapelketaren final jokatu zen urriaren 15ean Logroñoako Adarragan. Iker Salaberria herriko pilotariak txapela lortu zuen, Errioxako Pedro Ruizekin bikote eginez 22-12 irabazi baitzieten Zugarraldeko Enaitz Antso eta Bergarako Josu Zezeagari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxebizitza Batzordearen inkesta

Etxebizitza Batzordea (argazkian kideetako batzuk) hasi da etxez-etxe inkestak banatzen. Herriar guztiengana iristea da beraien helburua, herrian bizi dena zein baserrietan. Baita herrian etxea duena eta kanpoan bizi denarengana ere. Horretarako, etxez-etxe inkesta bat banatuko du batzordeko kideren batek eta egun batzuetara, berriro etxetik pasako dira inkesta jasotzera. Kanpoko norbaitek ere Goizuetan bizitzeko interesa izango balu nahiz edozeinek edozein zalantza argitzekoa, etxebizitza_batzordea@gmail.com helbidean kontaktatzeko aukera izango du. Inkestak herrian dagoen etxebizitza eta lokal komertzial, bulego, biltegi eta bestelako beharrari eta eskaintzari buruzko galderak biltzen ditu. Baina Goizueta bizileku bezala hobetzeko, iritziak emateko tarte ere izango du.

ARANO

AISIALDIA → HERRIA EZAGUTU, HERRIA GOZATU

Herrigintza eskolaren saioa urriaren 29an

‘Soinuen ibilbide’ bat egiteko eskulan tailerra antolatu dute

Ainhoa ANSA

Urriaren 29an herrigintza eskolaren hurrengo saioa egitekoa da. Soinuen ibilbide bat osatzea da asmoa eta horretarako, ume eta

gaztetxoekin egiteko eskulan tailerra antolatu da. Deialdia irekia da eta nahi duten gurasoek laguntza eman dezakete.

Emakumeen afaria azaroaren 4an

Herriko emakumeen afaria antolatu dute azaroaren 4an. Barrikotea egingo da Bixargorri eta urriaren 28an izango da

izena emateko azken eguna, kontsejuko arbelan apuntatu behar da.

Juan Fermin Recarteren omenez

Ekainaren 30eko batzarrean herriko motocross zirkuituari izena jarri zitzaion, herriarekin lotura estua zuen eta moto istripuz orain urtebete hil zen Juan Fermin Recarte gogoratuz.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriari buruzko ezagutza zabalitzen ari dira haur eta gazteak herrigintza eskolari esker.

Zirkuituari bere izena eman dio Aranoko Udalak eta urriaren 30ean ekitaldi xume bat egingo

da bere omenez, eta zirkuituari ofizialki izena emateko.

Ba al zenekien

San Martin eguneko ospakizunak azaroaren 13an egingo direla.



LEITZA

INGURUMENA → UDALAK ETA GAN-EK ANTOLATUTA

Erreka garbitzeko auzolana deitu dute urriaren 29rako

Aldez aurretik izena ematea eskatu dute lanak hobeki antolatzeko

JM BARRIOLA

Udalak eta GAN Nafarroako ingurumen kudeaketa erakundeak erreka garbitzeko auzolana antolatu dute. Bi erakundeen helburua da herritarrekin ingurumen arloko lanak egitea. Alde batetik sentsibilizazioa landuz eta bestetik ingurumena zaintzeko ohiturak bultzatuz. Ekimen honek gainera IREKIBAI eta, Europako Natura 2000 eta Life programen babes dauka.

Urtero antolatu izan den auzolana da erreka garbiketa. Orain arte ikasleekin egin bada ere, aurten herritar guztiei zabaldu nahi izan zaie deialdia, ingurumen kontzientzia sortuz.

Auzolanean, Leitza-ren ibaiko hainbat eremu garbituko dira (hondakinak erretiratu, plastikoa bildu...). Goiz erdian hamaiketako egin eta bildutako hondakinak plazan jarriko dira ikusgai.

Gomendagarria da aldez aurretik izena ematea leitza@eitza.eus helbidean taldeak eta



ARGAZKIAK: MENDIBIL BTT

Leitzulia BTT probaren lehenbiziko edizio arrakastatsua

Urriaren 15ean egin zen Aurrerako Mendibil BTT taldeak antolatutako Leitzulia. Lehenbiziko edizioa izan zen eta ikusmin handia piztu zuen; 300 parte-hartzaile izan ziren, antolatzaileek jarritako gehiengo oso osatuz. Antolatzaileak oso pozik daude jasotako erantzunarekin eta datorren urtean errepikatzeko prest agertu dira «aurten bezalaxe 300 parte-hartzailetan jarriko dugu muga denon hobe beharrez. Erne ibili beraz datorren edizioan ere izen-emateko» eta eskerrak ere eman nahi izan dizkiete muxutruk aritu diren ehun boluntarioei «zuek gabe mendiaren eta bizikletaren festa hau ez zen burutuko!»

egin beharreko lanak hobeki antolatzeko. Tresneria eta gosaria Udalak eta GANek jarriko dituzte, herritarrei arropa egokia eta lanerako gogoa eramatea bakarrik eskatzen zaie.



Ba al zenekien

Kale edo bale... balikebale! lehiaketa mundialaren hirugarren edizioa azaroaren 19an egingen dutela. Zineman 19:00etatik aurrera, Leitza buruz zenbat dakiten erakutsi beharko dute parte-hartzaileek.

ELKARTASUNA

Plastikozko tapoiak biltzeko kanpaina berezia abiatu dute

JM BARRIOLA

Aiorari, garun paralisia duen Lizarrako 3 urteko neska bati laguntzeko, plastikozko tapoiak biltzeko kanpaina berezia abiatu dute eta Leitza bilketarako guneak jarriko dituzte. Aiorak jaio zenetik bihotzeko arazoak izan ditu eta milaka azterketa egin dizkiote. Iazko udazkenean ebakuntza egin zioten bere egoera hobetzeko baina zailtasunak medio, garun paralisiarekin geratu da. Familiaren helburua ahalik eta bizi-kalitate hobereana ematea da eta egin beharreko errehabilitazio eta terapiak kostu handia dutenez, finantzaketan laguntzeko kanpaina hau jarri dute martxan. Bere laguntza eman nahi duenak, tapoiak bildu eta Leitza bilketa puntuetara eraman ditzake: Udaletxeko sarrera, Amazabal Institutoa, Etxetresnak denda, Erleta Eskola eta Kiroldegia.

FLASH

Ederbidea proiektuaren baitan Plazaolako geltokian lanak egingen dituzte

Ederbidea Europatik finantzaketa lortu duen proiektua da. Honen baitan Leitzako geltokiko lanen beste fase bat irekiko da. Guztira 150.000 euro inguru inbertituko dira. Urrian zehar ostegunetan bilera irekiak egingen dira Udaletxean eraikin honi eman ahal zaizkion erabileren inguruan hausnarke ta egiteko.

Kiroldegiko obrak aurrera doaz

Kiroldegiko hirugarren fasea hasi da eta egin beharreko lan guztien artean, obrarik handiena da hau; fatxadako isolamendua jarriko baitute. Victoriano Vicente enpresak egingen ditu lanak eta azaroaren erdialdean kiroldegia erabilgarri izatea aurreikusten du Udalak. Muskulazio gelako makina guztiak ere berrituko dira.

OBRAK → SASOI ERAKUINTZAK

Hasi dituzte zoladura konpontzeko lanak

Azaro bukaerarako lanak bukatzea aurreikusten da

Juana Mari SAIZAR

Urte hasieran jakin genuen Udalak irabazi zuela duela hamar urte herrian zoladura jarri zuen enpresaren aurkako auzia. Obren lizitazioa egin eta Sasoi eraikuntzak enpresak hartu zituen

berritzeko lanak. Abuztu-an hastekoak zituzten lanak eta berez, urria bukaerarako bukatuta egon behar zuten. Atzeratu egin dira lanak eta urriaren erdialdean hasi dituzte azkenean. Gaizki jarrita zegoen adokina kendu eta konponketak egiten ari dira, behar bezala jartzeko. Ea orain goan obrak kondizio onetan egiten diren eta ez den arazorik izaten.



Ba al zenekien

Itxaso Onsalo eta Patxi Eugik bigarren postua lortu zutela Euskal Herriko arpana txapelketan. Urriaren 23an jokatzekoa zuten Nafarroako txapelketa, ea 3.txapela lortzen duen!



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Bi ikastaro martxan eta hirugarrena aukeran!

Aurten, entrenamendu funtzionaleko eta zumbako ikastaroak antolatu ditu herrian Kirol Mankomunitateak. Urriari hasi zituzten klaseak eta aurreko urteetan bezalaxe, jende dexentek eman du izena kirol pixka bat egin eta bidenabar, ongi pasatzeko. Orain, aukera berri bat ere sortu da, makinaz josten ikasteko ikastaroa. Carmen Rezola herritarra izango da gidari lanetan arituko dena eta astelehenetan 20:00etan izango dira klaseak. Interesa duenak Sastinen eman behar du izena.

OSPAKIZUNA → BERTAKO EKOIZLE ETA BASERRITARREN ERAKUSLEIHOA

Bertako Produktuen II. Azoka antolatu dute azaroaren 13an Leitzan

Aurten Aresoko ekoizleek ere azokan parte hartuko dute

TTIPI TTAPA

Leitzako Udala eta LeitzEKO Kontsumo taldeak elkarlanean, bertako produktuen II. azoka antolatu dute azaroaren 13rako. Aurten gainera,

Aresoko ekoizleek ere parte hartuko dute azoka honetan.

Bertan eta bertakoa kontsumitu, modu arduratsuan. Hori da azoka honen helburu nagusia «bertan, bertakoa erosi eta jaten dugunean, herriko eta inguruko ekonomia sustatzen dugulako, komunitate kontzientzia sortu eta herria indartzen dugulako» diote anto-

latzaileek. Ekoizleen eta bereziki bertako baserriarren jakinduria eta ezagutza zabaltzeko erakusleihoa izan nahi du azaroaren 13ko azokak «bertako produktuari merxezi duen lekua eskainiz, baserriarrek protagonista bihurtu eta horrela lehen sektorea duinduz». Egitarau osoa hurrengo Ttipi-Ttapa aldizkarian izanen duzue.



BAZTAN

GIZARTEA → AZAROAREN 6AN

Baztan-Bidasoko I. Ezkontza Erakustaldia Oronoz-Mugairin eginen dute

Urgain hotelean doako luntxa eta moda desfilea izanen dute

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko I. Ezkontza erakustaldia eginen dute azaroaren 6an, igandean 11:00etatik 19:00etara Oronoz-Mugairiko Urgain hotelean, gure inguruan egiten den gisa honetako lehen feria. 12:30ean doako luntxa eskainiko dute eta 17:00etan moda desfilea izanen da. Eskualdean gisa honetako lehen topaketa izanen da eta helburu nagusia, ezkondu nahi duten bikoteei zerbitzu

ezberdinen berri ematea da. Honela, pintxoekin eta desfilearekin batera, musika, ileapaintze, makillaje, argazkilaritza eta berte jarduerak ere izanen dira.

Ornoz-Mugairiko Urgain Hotelarekin batera, Donostiako Aldabaldetrekusastrea, DJ Pali (Elizondo), Bideo-mik bideoak (Errenteria), Garden Esther lorezaintza (Narbarte), Alex Gaztelumendi argazkilaria (Irun), Martzutzak arropadenda (Bera), La petite mariee de Sopite andregaiendako jantziak (Hendaia), Ibarrola haur arropadenda (Doneztebe) eta Duue ilepaindegietetika (Bera) izanen dira azokan.

FOLK AMETSETAN ZIKLOA

Poloniako eta Euskal Herriko musika entzungai Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 6an abiatuko da aurten Baztango Udaleko Kultur Batzordeak Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatzen duen Folk Ametsetan Zikloa Elizondoko Arizkunenean. Igande arratsaldeko 7etan hasiko den emanaldian Poloniako Janusz Prusinowski Kompania taldea ariko da.

Azaroaren 13ean, ordu eta leku berean Euskal Herriko Gozategi talde historikoa ariko da. Bi ekitaldietan sarrera doan izanen da lekuak bete arte.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Beartzungo bestak auzoan bertan egin dituzte aurten

2004. urtean hasitako ohiturari eutsiz, Beartzun auzoko bizilagunek urteko anaitasun besta ospatu zuten urriaren 9an. Aurten arte, Elizondoko Antxitonea trinketean egin dute ospakizuna, baina aurten Beartzunen bertan ospatu dute. Txupinazoa bota zuten Josune Bertiz, Unai Iturregi eta Maria Jesus Rekartek. Ondotik, Antzanbordaundira jo zuten, ehun urte beteak dituen Martin Jose Matoria auzoko aitetxia bisitatzeraz. Etxeko terrazan zela, Maritxu Istilar emaztearekin, alabekin, bilobekin eta berte senideekin, ohorezko aureskua dantzatu zioten Irati Iparragirrek eta Iraide Iturregik. Ondotik, zapi gorria jarri zioten eta emaztearentzat lore-xorta izan zen. 115 bat lagun elkartu ziren Doneztebeko Santamaria jatetxetik ekarritako bazkari oparoa dastatzera, eta bazkalondoa Joxe Anjel Elizalde soinulariarekin dantzatu zuten. Hiru zare ere zozketatu ziren, eta Etxeberriko Maria Pilar Urrutiak, Arotzenekobordako Ana Belen Sarra-teak eta Joanes Jauregik eta Alfredo Zelaietak erdibana etxeratu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Martin ikastetxeko ikasle ohien bilkura Oronozen

Ornoz-Mugairiko San Martin Lanbide eskolako 1982-83 promozioiko ikasle ohiak urriaren 1an garai bateko ikastetxera bueltatu ziren, berriz ere elkarrekin egunpasa polita egiteko. Bazkaria izan zuten Urgain jatetxean eta gero beraien garai bateko ikastetxea (gaur egun Kultur Gunea) ikustera joan ziren. Aipatu dutenez, hainbat oroitzapen gogoratu eta kontatu zituzten: «Ez ginen denak bildu, baina denetaz oroitu ginen».

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 13AN

50. urteurrena ospatu du Elizondoko Lanbide Eskolak

Lehenengo promozioiko ikasle, irakasle eta langileak bildu dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolako 50 urte bete ditu urriaren 13an. Ikasturte honetan zehar hainbat ekitaldi ezberdin egiteko asmoa daukate, baina egun horretan ikastetxea sortu zela mende erdia zehazki beteenez, ospakizun berezia egin zuten. 50 urte hauetan 1.500 ikasle izan ditu ikastetxeak.

Ikasle ohien arteko pilota partidaren ondoren ekitaldi nagusia egin zuten. Baztango Dantzariak Aurrekua dantzatu zieten agintariari, irakasleei eta ikastetxeari eta, ondoren, Metalezko Elementuen Fabrikazioa espezialitateko OLH 2. mailako ikasleek Mikel Iriarte irakaslearen erranetara egindako Lanbide erronka eskultura inauguratu zuten. Erdi Maila mekanizatuko 2. mailako ikasleek ere bertso bat egin eta kantatu zuten bertaratutako guztien aitzinean.

1966ko urriaren 13an ireki zen ikastetxea eta lehen promozio hartako irakasleak, Azkoien go Fermin Basarte eta Ultzamako Manolo Lataza Elizondora hurbildu ziren, baita orduko ikasleak eta langileak ere. Ikastetxearekin lotura handia izan duen Fernando Gonzalez, erraterako, atezain be-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Lehen promozioiko ikasle, irakasle eta langileak, eskulturaren aitzinean.

zala hasi eta irakasle ere izan baitzen, Julian Mitxelena Arantzako apezaren erranetara. Gaztelu Abesbatzaren kantaldia ere hunkigarria izan zen eta *Lau haizetara* kantatuz akitu zen.

50 urte hauetan 1.500 ikasle inguru pasatu dira Elizondoko Lanbide Eskolatik. Gaur egun, ikaslegoaren %54a Malerrekakoa da, %35 Baztangoa, %5 Bortzirietakoa eta badi- ra Ultzama eta Iruñetik ere etortzen direnak. Maite Ariztegi zuzendariaren eta irakasleen erranetan, «eskualde osorako Lanbide Heziketa institutu berria lortzea da gure erronkarik handiena gaur egun».

ARGAZKI ERAKUSKETA

Elizondoko Lanbide eskolaren 50. Urteurreneko ospakizunen baitan, Arizkunenean argazki erakusketa eginen dute azaroaren 21-etik abenduaren 3ra ar-

te. Astelehenetik ortziralera, 17:00etatik 20:00etara eta larunbat eta igandetan 10:00etatik 13:00etara.

Erakusketa osatzeko argazki bilduma egin behar dute eta horregatik, «eskertuko genuke ikastetxean ikasitako

ikasleek argazkirik badute ikastetxetik pasatu edo emailaz bidaltzea (ieselizo@educacion.navarra.es).



UTZITAKO ARGAZKIA

Hazitik Hozie taldearen bisita Irunberriko Joseneart

Hazitik Hozie elkartearen eskutik baztandar talde batek Irunberriko Josenea enpresa ezagutzeko ibilaldia egin zuen urriaren 13an. Josenean sendabelarrak eta infusio-belarrak egin eta merkaturatzen dituzte. Ekoizpen guztia ekologikoa izateaz gain, enpresak izaera soziala du eta irabazi asmorik gabekoa da. Hazitik Hozie elkartearendako tokiko baliabideak arazoibidez erabiltzen duten proiektu sozioekonomikoak aski garrantzitsuak dira.

FLASH

Osasuna Fundazioa atxiki da berriz Udala

UPNk aurkeztutako mozioarekin bat eginenez, Osasuna Fundazioarekin zuen hitzarmena berreskuratu du Udalak. UPN, Geroa Bai, Auzolanen eta Ezkerrako zinegotziek aldeko botua eman zuten eta EHBilduk abstentziora jo zuen, «ez dakigulako Fundazioak dirulaguntzaren truke zer konpromiso hartuko dituen eta hitzarmenak zertara lotzen gaituen». UPNko Sanzberrok aipatu zuenez, «aski ezaguna da Osasuna Fundazioak egiten duen lana eta mozioaren xedea, bere garaian moztu zen partida bat berreskuratzea da».

ZUGARRAMURDI

URDAZUBI

KIROLA → FINALA ABENDUAREN 10EAN JOKATUKO DUTE

Zortzi bikote hasiko dira neguko pala txapelketan

Nahiz eta mistoa izan, neska bakarrak eman du izena

Margari eta Koro

Martxan dago Neguko pala txapelketa. De-

netara zortzi bikotek eman dute izena, eta nahiz eta mistoa izan, neska bakarra apuntatu da. Hiru aste hondarrez izanen dira partidak: azaroaren 26ean denak arituko dira elkarren kontra; abendua-

ren 3an finalerdiak jokatuko dituzte, eta final handia abenduaren 10ean.

Parte-hartzaile, antolatzaile, eta jarraitzeleendako bazkari bat eginen da finaleko egunean Arleun elkartearen



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Udazken emankorra izaten ari da

Aurtengo udazkenak onddo eta gaztain dexente ematen ari ditu. Geltxaurrekin berriz, arazoak omen dira, urtxintxak kalte handiak egiten ari baitira. Baratze batzutan ere kalabaza ederrak bildu omen dituzte. Argazkian, Zuhaitz eta Pablo ageri dira, horietako batzuekin.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Epaimahaia bentaz benta ibiliko da asteburu honetan.

GIZARTEA → URRIAREN 30ERA BITARTE

Dantxarineko Pintxoaren 3. Hamabostaldia azken txanpan

TTIPI-TTAPA

Dantxarineko Pintxoaren hirugarren hamabostaldia egiten ari dira urriaren 15etik 30era bitarte. Hama-bortz egunez Dantxarineko bentetako jate-teeek pintxoak eskaintzen dizkiete bezeroei eta sariak izanen dira, pintxo onenaren bozketan parte hartzen dutenendako.

Mugaren bi aldeetako sukaldari ospetsuak izanen dira epaimahaian eta pintxo onena izendatuko du-

te. Dantxarineko pintxo onenaren aukeraketan parte hartzen dutenen artean Mutriko Haitzalde Landaturismoan asteburuaz zozketatuko da. Parte hartzeko Bentetan egonen diren boletok bete eta bertan utzi beharko dira.

Bertzalde, Urdax-Urdazubiko Facebook orrialdean botoa emanaz gero jatetxe irabazle bi pertsonentzako bazkaria irabazteko aukera ere izanen da.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdi errep. 3.km
URDAZUBI

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

GIZARTEA → 28 URTEZ KONTSEILARI IZAN ONDOTIK

Martxel Arribillaga hautetsiak agur erran dio Herriko Etxeari

Franck DOLOSOR

28 urtez herriko kontseilari izan ondoan, Martxel Arribillaga amoztarrak agur erran dio tokiko politikari. 1983an herriko hautetsi izendatu zuten lehen aldikoz eta geroztik lau legealdi egin ditu segidan 1995-2001ekoak salbu. Gazte denboran SPUC herriko rugbi taldea sortu zuen eta geroago horko jokalaria ere izan zen. Kasik hogoita hamar urtez lehen lerrotik ikusi ditu Senperetik bizi izan dituen aldaketa sakonak eta go-goan ditu bertzeak bertze 1983 eta 2007ko uholdeak, biktimak eta ondolik aldiz guziz agertu den elkartasun handia herritarren artean. Lehen Herri Urrats ere biziki ongi gogoratzen du Martxelek. Germain Ezponda eta Christine Bessonart auzapezen

hurbileko kolaboratzailea izan da beti eta elgarrekin proiektu andana gauzatu dute: Gantxiki pilotalekua, Lizardian lan eremua, haurtzaindegia, Elkartetxea, eskola publiko berria, kirol zelaiko jarleku estaliak, ikastola-aisialdi gunea, jantokia eskoletako ikasleentzat, Larreko aretoa edo Luberriko baradera. 66 urtetan orain erretiroa hartzea deliberratu du. Arribillagari iruditzen zaio senperterek baserriguneari bizi nahi dutela hirietan dagoen erosotasuna izanez denbora berean. Xabi Camino amoztarrak ordezkatu du Sioyko semea herriko kontseiluan. Senperter gaztea eza-guna da urteetan Zirikolatze euskal dantza taldean eta Amotzeko besten batzordean lan oparoa egin baitu.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Martxel Arribillaga, ezkerrean, ondoan duela zonbat urteko hautetsiak dituelarik.

Elkargo berria

Urtarrilaren lehenean sortuko den Ipar Euskal Herri mailako herri elkargo bakarrean 2 ordezkari izanen ditu Senperetik. Prefetaren dekretuaren arabera asanblea berriak 233 kide izanen ditu orotaratu garrapen ekonomikoa, ingurugiroa, garraioa eta euskararen aldeko hizkuntza politika bezalako gaiak kudeatzeko. Pierre Marie Nousbaumek proposatuko du bera eta Sandra Lissardi izatea Senperetik ordezkariak. Herriko kontseiluak bozkatu behar du izendapen hori.

Abiada mugatua

Herritar ainitzek begi onez ikusten dute Amotzen duela hilabete batzuk plantatu den argi gorria. Argia gorri-rat pasatzen da ibilgailuak lasterregi ibiltzen badira, poliki ibiliz gero ez da gorritzen eta lasai ibil liteke Sara alderat eta karrika nagusirantz. Amotzeko es-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Liburua familian besta arrakastatsua

Urriaren 8an arrakasta ederra izan zuen Liburua Familian bestaren bigarren edizioak. Euskarazko eta erdarazko liburuak preziatzeko parada eskaini zen eta Elirale konpainiak *Oa-Huetak* ikusgarri berria estrenatu zuen ttikiaren eta beren burasoen gozamenarako.

kola publikotik atera - tzen diren haurrek ere argia gorritzea eskatzen ahal dute bidea lasaiki

zeharkatzeko. Herriko auzapezak dio batz bertzeko abiada erdirat apaldu dela toki hortan.

**GRUPO TANATORIO TALDEA**
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**LIZUN**
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

**ORBELA**
SENDERISMO ALBERGUESNAVARRA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

SARA

KULTURA → URRIAREN 9AN

Kabalkadaren proiektuak bururapen polita ezagutu du

Kanaldudek filmatu du eta DVDa manatzeko aukera bada Herriko Etxeko edantegian

Joana GERENDIAIN

Zazpiak Bat elkarteak eraman duen kabalkadaren proiektuak bururapen polita ezagutu du. Eguraldia lagun zela, 1200 bat pertsona plazara hurbildu dira 3 orreko ikusgarri hori

ikustera. Dantza, bertsu eta kantuak tartekatuturik hiru afera epaitu dira egun horretan: etxebizitzaren arazoa, apez eskasa eta Sud Mine enpresaren proiektuaren salaketa ihiztarien istorio bat aitzakitizat harturik. Bukieran 80 parte hartzaileak eszenan elkartu dira kantu bat kantatzeko eta publikoaren esku zartek ongi adierazi dute ikusgarri honen arrakasta. Kabalkada kanaldudek filmatu du eta DVD-a manatzeko aukera bada herriko etxeko edantegian 15 eurotan.



Sarako lehen kabalbada ikusgarria izan zen.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Errebestak

Sarako gazteria eta gaztetxeak elkarlanean, lehen aldiko Sarako errebestak antolatuko dituzte urriaren 29an larunbatarekin. Goizeko 11etan pilota partidak izanen dira errebotean ondotik eguerditan aperi-tifa. Arratsaldeko batetan Lur Berri gelan zikiroa egingen da «Binuza Fresko» txarangak animaturik, egunean berean aurretik saldu ez

diren txartelak emanen dira salgai 22 eurotan. Gaueko 10 etan Herri-tarrak dj-ak giroa ematen segituko du.

Kirol emaitzak

Urriaren 8 eta 9ko asteburuan eskubaloian ekipa guzietan galdu dute 13 urtez azpikoek 27-15 Nafarroaren kontra, 15 urtez azpikoek 23-17 Amikuzeren kontra, 18 urtez azpikoek 19-16 Escoubes-en kontra

eta seniorrek 24-15 Irisarriren kontra. Errubian 52-0 galdu dute Arrangoitzeren kontra.

Urriaren 15 eta 16ko asteburuan eskubaloian 13 urtez azpikoek 18-12 galdu dute Senpereren kontra, 15 urtez azpikoek ere 25-13 Nafarroaren kontra, 18 urtez azpikoek ere 22-16 Hendaiaren kontra, Seniorrek bakarrik garai-pena lortu dute 18-15 Leoussen kontra.

Juan Mari ZALDAIN MAISTERRENA

Amaiurren, 2016ko urriaren 1ean, 54 urte

Zu zara gure eredu
ta zure borroka gure harrotasuna.

Nahizta fite gan zaren
Ez zaitugu inoiz atzenduko
ta zure maitasuna
Beti egonen da gure bihotzian.

Zure pausuek segitiko tugu,
Zure indarrak ta umoriak
bidea argitzen dakun bitartian.

Gero arte senar eta aitaxo maitia.

EMAZTEA ETA SEME-ALABA



Juan Mari ZALDAIN MAISTERRENA

Amaiurren, 2016ko urriaren 1ean, 54 urte



Mendi haundira igen zara,
betin izarren hautsatik etorri bazinen
berri izarra bilakatzena.
Zure kalakaldi eta etea faltan botako ditugu.
Adio izar, adio txori, goraintziak Juanmari.

MENDI ITZULIETAKO LAGUNAK



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

XI. URTEURRENA

Izan zirelako gara
Garelako izango dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.

ETXEKOAK

EZKONTZAK

Bruno Berrouet eta **Emilie Iramuno**, Sarakoak, irailaren 24an.
Michel Etcheverry eta **Sophie Alzua**, Sarakoak, irailaren 24an.
Garbiñe Jorajuria Bazterrika eta **Ander Zelaia Amenabar**, Donamaria eta Donostiakoa, irailaren 24an.
Jabier Laspidea Uhalde eta **Ainhoa Mutuberria Estanga**, Bidankoze eta Doneztebekoa, Legasan irailaren 24an.
Gorka Garate Alustiza eta **Ixone Goia Arretxea**, Azkoitia eta Lesakakoa, irailaren 24an.
Raul Montanet Moreno eta **Alejandro Moreno Miguel**, Donostia eta Irungoa, Etxalarren, urriaren 8an.
Juano Arburua Irazoki eta **Natalia Adin Oteiza**, Zugarramurdi eta Iruiritakoa, urriaren 15ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK


Katixa Sainz Etxabide, Igantzikoa, urriaren 2an.
Koldo Rodriguez Lopez, Lesakakoa, urriaren 8an.
Irai Lopez Oteiza, Doneztebekoa, irailaren 29an.
Jeanne Luce Lourau, Sarakoa, irailaren 9an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Antonia Ziganda Goñi, Narbartekoa, urriaren 5ean, 90 urte.
Julia Olaetxea Güe, Lesakakoa, urriaren 5ean, 91 urte.
Fernando Otxandorena Maiora, Almandozkoa, urriaren 6an, 54 urte.
Maria Josefa Danboriena Olazar, Iruiritakoa, urriaren 7an, 67 urte.
Antonia Juankorena Iruingarai, Doneztebekoa, urriaren 9an, 87 urte.
Jesus Escudero Zugarramurdi, Leitzakoa, urriaren 11n, 75 urte.
Patxi Amorena Arretxea, Arizkungoa, urriaren 11n, 70 urte.
Ramon Zaldua Elizalde, Elizondokoa, urriaren 13an, 63 urte.
Asuncion Saldias Arozamena, Elizondokoa, urriaren 16an, 80 urte.
Pantxo Iribarren Garate, Urdazubikoa, urriaren 17an, 83 urte.



Agustin PORTU ETXABIDE

Kasko xuritik kaska xurira, zinen denboraz igaro ez behar batek eraman zaitu bizitzatikan harago Larrun mendian magala orain dago pixkat soilduago zuhaitz handi bat erori arren itzala zutikan dago zorionean utzi dituzu landare berri gehiago.

PORTUTAR SENIDE, ILOBA ETA ILOBA TTIKIAK



Agustin PORTU ETXABIDE

«Aguxtin»

Beran hil zen, 2016ko irailaren 28an, 64 urte zituela

Agustin Porturen familiak eskerrak eman nahi dizkiete senide, lagun eta lankide guztiei, une gogor hauetan jaso ditugun besarkada eta maitasun adierazpen guztiengatik.

MILESKER!

FAMILIA



Agustin PORTU ETXABIDE

Zure kabi maite Arantan utzi gaituzu goizegi. Familia elkarrekin egotea gustokoa zenuen gehiegi. Hegan egizu Agustin Jaunarengana altuegi, hementxe elkartuko gara zure omenez maizegi.

KOINADUAK ETA ILOBAK

HERRI KIROLA → NAFARROAKO SOKATIRA TXAPELKETAKO BIGARREN JARDUNALDIA LESAKAN AZAROAREN 6AN

Txapelaren bila hasia da Beti Gazte sokatira taldea

Zortziko sokatira txapelketan ari dira lesakarrak, 600 kiloko kategorian

TTIPI-TTAPA

Joan den igandean, urriaren 23ean abiatu da Iruñean Nafarroako 8x8 sokatira txapelketa. Gizonezkoak 600 kiloko kategorian jokatzeko ari dira bakarrik eta Lesakako Beti Gazte da eskualdeko ordezkari bakarra. Sei seiren kontrako txapelketa mistoa ere jokoan da, 420 kiloko kategorian eta emakumezkoena 375 kiloko kategorian eta hauetan ez da eskualdeko ordezkariarik.

Gizonezkoetan, 600



ARTXIBOKO ARGAZKIA

laz bezala, aurten ere txapela irabazteko faborito nagusia izanen da Beti Gazte.

kiloko kategorian, Lesakako Beti Gazterekin batera, Berriozar eta Txantrea ari dira lehian. 6x6 txapelketa mistoan, berriz, 420 kiloko kategorian, Berriozar A eta B, Txantrea eta Kaskallueta ari dira. Emaku-

mezkoen 375 kiloko kategorian, Berriozar eta Txantrea lari dira.

AZAROAREN 6AN LESAKAN

Urriaren 23an Iruñeko Refena aretoan jokatutako lehen saioa-

ren ondotik, bigarren jardunaldia azaroaren 6an, 17:00etatik aitzinera jokatuko dute Lesakako udal pilotalekuan eta hirugarren eta hondar jardunaldia azaroaren 12an, 18:00etan Berriozarren.

ATLETISMOA

Vanessa Pacha da Erreka EKT taldeko entrenatzailea

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Taldeko emakume korrikalari taldearen laugarren denboraldia aldaketekin hasi zen urriaren 6an. 13 emakumezkoena eman dute, eta bakarren bat gehiago ere izanen da. Aldaketarik sakonena, entrenatzailearena izan da, Vanessa Pacha korrikalari ezagunak taldea entrenatuko baitu. Erreka-entzatu ohore bat da horrelako maila duen korrikalaria EKTz arduratzea. Orain arte Iñigo Arregui eta Aritz Arriola aritu diren entrenatzaile.

Bertzetik, entrenamendu egunaz ere aldatu dute, orain arte ortzegunetan zen, baina orain asteazkenean egiten dute.

ERRUGBIA → ESPAINIAKO SELEKZIOAREKIN

Saioa Jaurena elizondarra Europako txapeldun

Munduko txapelketarako sailkatzeko bi partida jokatuko ditu orai Eskoziaren kontra

TTIPI-TTAPA

Saioa Jaurena elizondarrak Europako emakumezkoen errugbi txapelketa irabazi du Espainiako selekzioarekin, Madrilen urriaren 15ean jokatutako finalean Herbeherei 35-7 irabazi ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saioa Jaurena, eskuinetik hasita bigarrena, bere taldekidea babesten.

Garaipen honek, Munduko txapelketarako sailkatu ahal izateko bertzeko bi partida jokatutako eskubidea eman

dio Espainiako selekzioari. Azaroan jokatuko du Eskoziaren kontrako kanporaketa, joan eta etorriko partidekin,

2017an Irlandan jokatuko den Munduko txapelketarako Europako taldeendako azken txapelaren bila.

HERRI KIROLA → EUSKAL HERRIKO BIGARREN MAILAKO AIZKORA TXAPELKETAREN FINALA

Mindegia, Larretxea eta Erasun finalean izanen dira

Igandean
18:00etan
Azkoitian

TTIPI-TTAPA

Euskadiko bigarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu dute urriaren 8an Azkoitiko pilotalekuan (Gipuzkoan). Hamabi aizkolari aritu ziren lehian, urriaren 29an, igandean 18:00etan leku berean jokatu den finalerako sei txartelen bila.

54 ontzako hiru enbor, 60 ontzako enbor bat eta 72 ontzako enbor bat mozten biz-



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Igandeko finalean ariko diren sei aizkolariak.

korrena Eneko Otaño gipuzkoarra izan zen (13:49) eta bere ondortik sailkatu ziren Miel-

txo Mindegia zubieta-rra (14:07), Arostegiko Julen Kañamares (14:32), Oihan Larretxea

beratarra (14:34), Ander Erasun aurtiztarra (14:40) eta Julen Alberdi gipuzkoarra (14:42).

HERRI KIROLA → IGANTZIN URRIAREN 1EAN

Euskal Herriko ingude jasotze txapelketa irabazi du Maika Ariztegi

Gizonezkoetan
Jon Lapazaran
arabarra garaile

TTIPI-TTAPA

Emakumezkoen eta gizonezkoen ingude-jasotze txapelketak jokatu zituzten urriaren 9an, igande arratsaldean Zizurkilen (Gipuzkoa). Pronostikoak bete eta Maika Ariztegi iturendarra txapelkun suertatu zen emakumezkoetan eta Arabako Jon Lapazaran gizonezkoetan.

2014an egin zen lehen aldiz emakumezkoen ingude jasotze txapelketa eta Maika Ariz-

tegi suertatu zen txapelkun. Iaz, aldiz, bigarren izan zen, Haizea Ziarrusta bizkaitarrak baino altxaldi bat guttiagorekin. Aurten, berri ere txapela berreskuratu du Maika Ariztegi eta minutu eta erdian 10 kiloko ingudeari 93 jasoaldi eginez marka berria ezarri zuen. Karmele Gisasola bizkaitarrak 89 altxaldi egin zituen eta Lapurdiko Aurélie Vanschamelhoutek 83.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Maika Ariztegi ingudearekin lanean. Bigarren aldiz Euskaldiko txapelkun izatea lortu du.



ARPANA

Euskal Herriko txapelketa mistoa Ultzamara joan da aurten

Kanporaketan denborarik onena egin zuten Itxaso Onsalo aresoarra eta Mikel Eugi ultzamarra ziren faborito urriaren 12an Basmurin jokatuako Euskal Herriko arpana txapelketa mistoaren finalean, baina azkenean, bigarren izan ziren, Ultzamako Ana Iraizoz eta Josetxo Barberena lehengusuen gibeletik. Berako Nerea Sorondok eta Arraizoko Xabier Urrutiak osatu zuten podiuma.

Bikote bakoitzak, 15 epai eman behar zizkion etzanda jarritako 45 ontzako enborrari eta lehenbiziko postuetan lehia polita izan zen, hiru bikotena farren artean.

Azkenean Ana Iraizoz eta Josetxo Barberena izan ziren bizkorrenak, 4 minutu eta 51 segundoko denborarekin. Gaur egun Nafarroako txapelkun diren Itxaso Onsalo eta Mikel Eugi bigarren izan ziren 14 segundora (5:05) eta Nerea Sorondok eta Xabier Urrutiak osatu zuten podiuma (5:29). Laugarren postuan, Alatzne Etxaburua eta Santi Aizpurua gipuzkoarrak (5:41), bosgarren Batirtze Ispizua eta Arkaitz Ispizua bizkaitarrak (6:01) eta seigarren, Gipuzkoako Irati Astondoa eta Bizkaiko Julen Etxeberria (7:29) sailkatu ziren.

Euskal Herrikoaren ondortik, urriaren 23an Beran jokatzekoa zen Nafarroako txapelketa.

urriak 27 - azaroak 10

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Literatura



DONEZTEBE | 2016.10.28

Udazken literarioak Donezteben Malerrekako idazleekin

Abenduaren 9ra arte, ortziraletan, Herriko Ostatuan Luis Garde, Tiburtzio Arraztoa, Alicia Del Castillo, Elixabet Badiola, Izaskun Zubialde eta Dani Martirena idazleen lanak ezagutzeko aukera izanen da.

Kontzertuak



ELIZONDO | 2016.11.06-13

Poloniako talde bat eta Gozategi Folk Ametsetan ekimenaren baitan

Azaroaren 6an Poloniako Janusz Prusinowski Kompania ariko da 19:00etan Arizkunenea Kultur Etxean, eta toki eta ordu berean, Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du azaroaren 13an.

Bertsoak



BERA | 2016.10.29

Bertso musikatua Alaia Martin, Amaia Agirre, Jone Uria eta Oihana Iguaranekin

Ez da kasualitatea bertso saio musikatua eskainiko dute Kultur Etxean, 20:00etan. Ainhoa Aranburu izanen da gai-jartzailea eta musikariak Gari Otamendi eta Ixak Arruti. Sarrera 3 euro izanen da.

Erakusketak

ARANTZA

1943an erori zen gerra hegazkin alemaniarrari buruz

Urriaren 31n eta azaroaren 1ean 10:00etatik 13:00etara Baskulan.

ELIZONDO

Tren Txikitoren mendeurrenako erakusketa

Azaroaren 7ra arte Arizkunenea, 18:00etatik 20:00etar.

DONEZTEBE

Tren Txikitoren mendeurrenako erakusketa

Azaroaren 10etik 20ra.

Hitzaldia

DONEZTEBE

Jubilatuentzako elikadura egokienari buruz hitzaldia

Urriaren 27an Josetxo Ruizekin, Arkupeak elkartearen egoitzan, 18:00etan.

Udazken literarioak Herriko Ostatuan

Urriaren 28an Luis Garderekin, 20:00etan.

Azaroaren 4an Alicia del Castillorekin, 20:00etan.

Azaroaren 11n Tiburtzio Arraztoarekin, 20:00etan.

ARANTZA

'Su galduaren bila' ipuinaren aurkezpena Baskulan

Urriaren 29an Aitziber Almandozekin, 12:00etan.

'Bortzirietan erabakitzeo eskubidea? Gure esku dago'

Urriaren 31n 20:00etan eskolako gimnasioan.

LESAKA

'Seme-alaba nerabeak, zailtasunak eta desfioak'

Urriaren 29an Yolanda Gonzalezekin, 18:00etan Harriondoa Kultur Etxean.

BERA

Dantza hizpide lamotenean

Urriaren 29an *Dantza eta erlijioa* 12:00etan eta *Musika zuzenean ala grabatua?* 16:00etan.

BERA

Baserriaren jatorria

Urriaren 28an *El origen den caserío vasco* Alberto Santanarekin 12:00etan.

Bertsoak

BERA

'Ez da kasualitatea'

Urriaren 29an Alaia Martin, Amaia Agirre, Jone Uria eta Oihane Iguaran 20:00etan Kultur Etxean.

LARRESORO

Xilaba txapelketako finalaurrekoa

Urriaren 29an 17:00etan Herriko Gelan.

ETXALAR

Bertso afaria

Azaroaren 5ean Onintza Enbeita eta Jon Maiarekin Herriko Ostatuan.

PROPOSAMENA

ARANTZA

Baserritarren Egunaren XXI. edizioa

Ekaitzak Elkarteari esker, herritarren baratzeko produktuak, aziendak, nekazal tresnak edo eskulanak ikusi edota erosteko aukera izanen da bertze aldi batez azaroaren 1ean Arantzán. Gazta eta ahari lehiaketak ere egingen dituzte. Ez da Kultur Egunetako ekitaldi bakarrazizana: Anje Duhaldek kontzertua emanen du, Aitziber Almandoz herritarak ipuina aurkeztuko du, Arantzán 1943an eroritako gerra hegazkin alemaniarrari buruzko erakusketa, erabakitzeo eskubideaz hitzaldia...



BAIONA

Xilaba txapelketako finala

Azaroaren 12an Lauga gelan, 17:00etan.

Ikuskizunak

ARANTZA

Niala magoa haurrentzat

Urriaren 30ean 16:30ean eskolako gimnasioan.

Antzerkiak

BERA

XVIII. Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 4an *Sarean kateatuak* 22:00etan Errekalde ostatuan.

Azaroaren 11n *Putinen guardasola* 22:00etan Ikuilu ostatuan.

Ospakizunak

SARA

Usoaren Astea

Urriaren 30era arte.

URDAZUBI

Dantxarinearako III. Pintxoaren Hamabostaldia

Urriaren 30era arte.

ARANTZA

Kultur Egunak

Urriaren 29tik azaroaren 1era.

GOIZUETA

Jubilatuen asteburua

Azaroaren 5ean eta 6an.

ETXALAR

Altzatarren 25. urteurrena

Azaroaren 5ean.

Bestak

SARA

Errebestak

Urriaren 29an.

AURTITZ

Sanmartinak

Azaroaren 10etik 13ra.

Nire aukera



Ekiñe MINDEGIA BALEZTENA
Aurtizko gaztea

«Aurtiztarrok herri bat garela sentitzen dugu»

Neska alai, saltsera eta lotsati xamarra». Halaxe aurkeztu digu Ekiñe Mindegia Baleztena aurtiztarrek bere burua. Ikasten ari da, Elizondon, Administraziozako Goi Mailako ikasketak egiten, hain zuzen, eta gerora ere ikasten segitu nahi du: «Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako ikasketak egitea gustatuko litzaidake eta ondotik, poliki-poliki lan munduan sartzeko asmoa daukat», erran digu. Baina ikasle izateaz gain, irakaslea ere bada. Etxeko tradizioarekin segituz, ahizpa eta anaia zaharrenak bezala, pandereta eta trikitixa eskolak ematen hasi da: «aurten hasi naiz klaseak ematen. Egian erran, ikasten baino hobeki ikusten dut nire burua irakasle lanetan. Haurrekin egotea aunitz gustatzen zait». Eta hori agerian gelditu da, denbora librean ere etxeko ttiekien egotea gustuko duela onartu baitigu: «denbora libre dudanean, ilobekin egotea gustatzen zait». Baina lagunak ere ez ditu aparte utzi: «lagunekin kontu kontari egotea» ere atsegin duela adierazi baitigu. Aspalditik dabil musika munduan: «pandere-ttikitatik jotzen dut, lau bat urterekin hasi nintzen ahizparekin ikasten eta trikitixa zortzi urterekin». Bi musika-tresnak «aunitz» gustatzen zaizkiola aitortu digu, baina aukeratu beharko balu, trikitixa nahiago duela dio, «alaiagoa da». Garbi dio nongoa den, aurtiztarra da: «jende aunitzek Aurtitz Iturengo auzoa dela erraten du, baina aurtiztarrok herri bat garela sentitzen dugu».

Aurtizko txokorik maiteena Mendaurko magala eta urtegi bazterra dituela ere kontatu digu eta laster ailegatuko diren Aurtizko sanmartinak ere maiteak ditu: «Aurtizko bestak osotasunean gustatzen zaizkit, baina batez ere, ortziraleko herri bazkaria. Arrunt giro polita izaten da, egun horretan zahar eta gazte aunitz biltzen garelako». Eta aukera probestuz, gonbitea ere luzatu du: «giro ona bilatzen duten guztiei Aurtizko bestetara etortzeko gonbidapena luzatuko nieke, besta politik izanen dira eta». Eta zer behar ote du 18 urteko aurtiztar gazte honek kontent bizitzeko? Bada haxe: «familia eta lagunak nire inguruan izatea eta hauek osasuntsu egotea».

«Giro ona bilatzen duten guztiei Aurtizko bestetara etortzeko gonbidapena luzatuko nieke, besta politik izanen dira eta»

Azokak

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean.

ORONOZ-MUGAIRI

Baztan-Bidasoko I. Ezkontza erakustaldia

Azaroaren 6an 11:00etatik 19:00etara Urgain Hotelean.

LEITZA

Bertako produktuen II. Azoka

Azaroaren 13an.

Zinema

LEITZA

Zinema denboraldia

Urriaren 30ean *Nuestra hermana pequeña* 19:30ean.

Azaroaren 6an *La Juventud*, 19:30ean. Sarrera 6 euro.

Kontzertuak

SALDIAS

Amaia Zubiria, Edorta Murua eta Jean Bordaxar

Urriaren 29an elizan, 18:00etan. Sarrera 5 euro.

LESAKA

Organo musika elizan

Urriaren 29an 18:00etan.

ARANTZA

Anje Duhalderen kantaldia

Urriaren 29an 20:00etan eskolan.

ETXALAR

Kantaldiak elizan

Azaroaren 5ean *Bi poliedro* 19:00etan. Ondotik, Xabier eta Aner Euzkitze.

ELIZONDO

Folk Ametsetan

Azaroaren 6an Poloniako Janusz Prusinowski konpainia, 19:00etan Arizkunenean. Azaroaren 13an Gozategi 19:00etan Arizkunenean.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Pisuua salgai, 90 m²ko azalera. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko batera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL

IMMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.500 euro. ☎646 774117.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Logelak errentan emateko, astelehenera. Bakoitza bere komunarekin, telebista eta sukaldia erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862 / 678 855056.

IRUÑEA. Azpilagaina azuloan, 2 unibertsitateetatik gertu dagoen 3 logelako pisua alokairuan. De-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

na eraberritua. Interesatuak telefonoz deitu. Kontratuarekin. ☎608287273.



LESAKA. 3 logelako pisua errentan emateko, mobleztatua. ☎639 855284 / 636 116021.

ALMUÑECAR, Granadako kosta tropikala. Hondartzako lehen leerroan apartotela errentan emateko. Terraza, bista zoragarriak, igerilekua, hagitz ongi horni-



tua. Abenduan, 1etik 15era eta 15etik 30era. ☎658 943702.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Pisuua errentan hartu nahi dute 2 neska arduratsuk, mobleztatua eta egoera onean. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (20:00etatik aitzinera).

ELIZONDO. Pisuua errentan hartu nahi da. ☎604 243558.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

ELIZONDO. Logela errentan emateko. ☎617 805909.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo

bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

URDAZUBI. Montxo ostatuan zerbitzaria behar da. Frantses pixka bat dakiena. ☎948 599039.

URDAZUBI. Montxo ostatuan esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎948 599039.

BERA. Katakua herri ostatura kudeatzeko lantalde euskalduna behar da. Interesa baduzu eta baldintzak ezagutu nahi badituzu, idatzi *katakua@mail@gmail.com*.

Adineko pertsona bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. ☎630 947524.

LANA

eskariak

Etxalarko neska bat lan bila, arduratsua. Dendarri lanetan esperientziarekin, zerbitzari bezala eta

umeekin ere bai. ☎687 222320.

ELIZONDO edo INGURUAN. Neska gazte bat lan bila. Adineko pertsona interna moduan edo orduka zaintzen, konpainia lanetan edota garbiketaren lanetan interesatua. ☎631 039914.

Adineko pertsona zaintzen esperientziadun emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko orduka edo interna bezala edota garbiketaren lanetan aritzeko. ☎631 631036.

ELIZONDO eta INGURUAN lan bila. Haurrak zaintzen, adinekoak (interna edo orduka) edota garbiketaren lanetan interesatua. ☎632 434985.

Ostalaritzan, adinekoak zaintzen eta garbiketaren lanetan esperientziadun **emakumea lan bila.** Interna moduan adinekoak zaintzen bereziki interesatua, haurrak zaintzen edota garbiketaren lanetan. ☎631 341849.

Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen interna bezala edo orduka, garbiketaren edota sukaldari bezala interesatua. Esperientziarekin eta arduratsua. ☎635 296717.

BAZTAN eta INGURUAN mutila lan bila. Nekazaritzan eta abeltzaintza lanetan esperientziaduna. Ganaduarekin, nekazari, adinekoak edo haurrak zaintzen... edo zertan lan bila. Ikasteko trebea. ☎610 989163.

BASERRIADATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(urriaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 36 €

Zerri gizona
1,262 € kiloak.

Zerramak:
0,770 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16

1.koa 3,93
2.koa 3,75

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 140,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 120,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,05/3,15
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,90/8,90
8-10 kilokoak: 7,00/7,40

**ELIZONDO eta INGU-
RUAN** lan bila. Haurrak
zaintzeko, adinekoak
zaintzeko orduka edo in-
terna moduan eta garbi-
keta lanetan interesatua.
Esperientzia haurrak
zaintzen. ☎602 419047.

MOTORRAK
salgai

Discovery Sport 2.2 sd4
HSE salgai, 190cv auto-
matic, diesela, 2015eko
maiatzekoa. Egoera ezin
hobean eta extra guztie-
kin. Larruzko eserlekuak
(grained, Ebony), karga
barrera, aurreko eserle-
kuak berogailuarekin,
ilundutako kristalak, or-
dezko gurgila neurri kom-
pletoa, Black pack llan-
tak (19"), eskiak erama-
teko kit konpletoa eta
bazterreko barak. 43.500
euro. ☎609 402229.



Toyota Land Cruiser VX
166 CV salgai, 167.000
KM, mendian ibili gabe-
koa eta garajejan egon-
dakoa. 2006. urtekoa.
Oso ongi zaindua. Argaz-
ki gehiago bidaliko dira.
☎653 709496 / ttxamo@hotmail.com.



ANIMALIAK
denetarik

Kotxearen engantxean
airean eramaten den **re-
molkea** salgai. Bi zakur
sartzeko modukoa.
☎670 251632.



SARA. ardi bazkak sal-
tzeko, urritik maiatza ar-
te, 50 antxurentzat.
Arratsetan deitu, 8eta-
tik goiti ☎(0033) 559
542337.

ALKAIAGA. 5 ahuntz
desagertu dira Pilarika
Egunean. 4 azpigorri eta
1 beltza. Norbaitek iku-
si baditu dei dezala.
☎607 827309.

ANIMALIAK
salgai

ARESO. Bi txakurkume
salgai, aita eta ama
ehiztari onak. Txertatu-
ak eta desparasitatuak
daude. Hiru kolorekoak
dira. 3 hilabete dauzka-
te. ☎609 937127.



ANIMALIAK
oparitzeko

Katakumeak oparitzeko.
☎626 335398.



DENETARIK
salgai

ORONoz. Egurra xehe-
tua salgai. Pagoa eta haritza.
Etxera eramanen da.
☎676 242520.



SUNBILLA. Altzariak sal-
gai: gerezi egurrez egin-
dako armairua, haritzez
-ko armairua, paretako er-
loja kaxarekin, haritzez-

**SANTESTEBAN
TAILERRAK**

Estreinatua gabea

16.900€* **KM 0**

MEGANE IV INTENS DCI 90 CV
Nabigatzailea, klimatizadorea,
6 marba.

12.950€* **KM 0**

*Sustapen Inantzerotz lotua

CLIO LIMITED TCE 90 CV
Estreinatua gabea, Nabigatzailea,
lantak, klimatizadorea.

Laitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

ko logela osorik, egonge-
lako altzaria (haritza) eta
lurreko suaren kasetea
(paretan sartzekoa). De-
nak egoera onean. ☎617
461649.



**Altzairuzko sei frega-
dera** salgai, 1,5 m luze,
borobila. ☎948 585036.

**Bodart & Gonay lurre-
ko sua salgai.** Horman
txertatzekoa eta airez-

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

VW PASSAT TDI 170CV
AUTOMATIKOA DSG - 2012

VW POLO TDI - 2012
75.000 KM.

SUBARU OUTBACK 2.5i 174CV
2007 - 152.000 KM

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

tapenarekin. 1068x668
neurrikoa eta 14 kw po-
tentzia. Prezioa 1.000€.
☎948 610961.



EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

Paretan jartzekoak
Kontsultatu neurriak,
hilabeteak ilargiekin,
euskaraz, elebitan...

Mahai gaineko egutegiak
Modelo ugari aukeran,
trokelatuak, paper edo
PCVzkoak

Posterrak
Neurri handikoak:
A1, A2, A3.
Paper lodian

Sakelekoak
55x85 mm.
66x96 mm.
Izkin borobilduak



Koskontako bidea, 7 · Lesaka
T. 948 63 54 58
www.kulturkari.com
kulturkari@ttipi.eus



Eskatu aurrekontua!

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



IRATI POMBAR LARRALDE beratarrak urriaren 11n 11 urte bete ditu. Aunitz urtez **IRATI!!!** Muxu pila eta besarkada haundi bat Eluska, Eila eta Urkiren partetik!



Aunitz urtez **BEGO!!!** Muxu sorta ederra etxekoen partetik eta animo digito aldaketan...!!!



ASIER MUTUBERRIA PAGOLARI: Aunitz urtez!!! 7 urte bete ditu gure gizontxok!! Muxu haundi bat familia guztiaren partetik!



Zubietako **ENEAK** urriaren 3an urtea bete du eta **MAIALENEK** urriaren 11n 4 urte bete ditu. Zorionak Zubieta eta Zozaiako familiaren partetik. Muxu eta besarkada haundi bat bie.



Iruritako **MIKEL AGERRALDEK** 2 urte bete ditu urriaren 6an. Zorionak Donamariako familiaren partetik, bereziki amaxiren partetik. Muxu haundi-haundi bat.



OLAIA eta **AIORA GOIENETXE ZUBIETA** bi printzesatxo hauek 5 urte beteko dituzte urriaren 28an. Zorionak eta ongi-ongi pasa eguna, zuen ahizpa eta familia guztiaren partetik. Muxu pila polittak!!




JOSE MARI IRAZOKIK 58 urte bete ditu urriaren 12an. Funverako langileen partetik zorionak eta agur.



Erratzuko **HARITZ ITURBURUA JAURENAK** 11 urte bete dituelako, zorionak Naroa eta Enaitz bi lehengusuen eta bereziki Iker anaiaren partetik.



Lesakako **URKO TELLETXEAK** 2 urte bete ditu urriaren 12an. Zorionak eta bi muxu haundi Zubietako familiaren partetik. Aupa motorista!!!



IORITZ IGUZKIAGIRRE IRIGOIENEK 4 urte beteko ditu urriaren 27an. Aunitz urtez eta muxu potolo bat Ainereta familia guztiaren partetik.




UXUE IBARRA MARIEKURRENAK 9 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak guapisima! Ongi pasa zure egunean. Mila muxu potolo familia guztiaren partetik. Eta segi zaren bezalakoa izaten, ez aldatu inoiz!



Urdazubiko **PABLO IRAZOKI OLAIZOLAREN** partetik: milesker **IBAN** eta parte hartu dutenei nire zorionetan horrelako merendu goxoa emateagatik. Muxuak.



Sunbilloko **HEGOAK** eta bere amaxi **ANPAROK** urteak beteko dituzte urriaren 22 eta 30ean. Aunitz urtez bie familia guztiaren partetik. Ongi ospatu zuen urtebetetze egunak. Muxuak.



Igantziako **OLAIA HIRAK** 4 urte bete ditu urriaren 18an. Aunitz urtez printzesa, attatto-amaxo eta Ainararen partetik. Muxu haundi bat.

berako agenda

berakoagenda.eus

[f](#) [t](#)

Azaroa

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus

BERAKOUDALA berako kultur batzordea

05 LARUNBATA

BERAKO I. KUADRILEN GOITIBERA JAUTSIERA.
10:00-13:00 / 14:30-19:30
Mitxinborda - Matzada

12 LARUNBATA

SOLASALDIA MAITASUN ERROMANTIKOA EZBAIAN (Irantzu Varela)
18:00 Beralandetan
Antolatzailea: Galdatz Erakunde Taldea

14 ASTELEHENA

SOLASALDIA HERIOTZ DUINA ETA EUTANASIA (Manuel Eciolaza; Nafarroako DHEko burua)
18:30 Beralandetan
Antolatzaileak: Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Lesakako Osasun etxea
Laguntzailea: Ekarrizan Laguntza Erakunde Taldea

17 ORTZEGUNA

SOLASALDIA NO SABEMOS (BIEN) EUSKERA, ¿COMO LES AYUDAREMOS?' (Paula Kasares)
Oharra: hitzaldia euskaraz ez dakiten gurasoentzat da eta gaztelaniaz izanen da
17:00 Beralandetan
Antolatzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

19 LARUNBATA

HAURENTZAKO IKUZKIZUNA GAUEKO ENZIKLOPEDIA KOXKORRA (2 princeses barbudes)
17:00 Kultur Etxean
Sarrera: 3 €
Argibide gehiago: www.2princesasbarbudes.org
Antolatzailea: Lahiaga Ikastola

20 IGANDEA

DANTZA EMANALDIA EL CIELO AHORA (Olatz de Andres)
19:00 Kultur Etxean
Sarrera: 6 €
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

21 ASTELEHENA

MUSIKA SANTA ZEZILIA EGUNA
18:00 Musika Eskolan
Antolatzailea: Iñobere Fagoga
Udal musika eskola

25 ORTZIRALEA

HAURENTZAKO IPUIN KONTALARIA MUNDUKO IPUINAK
Ines Bengoa
4-8 urte bitartekoentzat
18:00 Herri liburategian

XVIII. Berako Kafe Antzerki Zikloa 2016

04 ORTZIRALEA

Sarean Kateatuak (Nomotobikak Taldea)
22:00 Errekalde Ostatuan

11 ORTZIRALEA

Putinen guardasola (Xenimorik gabe Taldea)
22:00 Ikulu Ostatuan

19 LARUNBATA

Sexijentziak askatuz (Bazen behin Clown Taldea)
22:00 Lixioia Ostatuan
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordea

Antolatzailea Laguntzaileak



AZAROAK 4, ORTZIRALA
22:00ETAN, ERREKALDE OSTATUAN
NOMOFOBIAK TALDEA
SAREAN KATEATUAKA?



AZAROAK 11, ORTZIRALA
22:00ETAN, IKUILA OSTATUAN
XENTIMORIK GABE TALDEA
PUTINEN GUARDASOLA?



AZAROAK 19, LARUNBATA
20:00ETAN, LIXOIA OSTATUAN
BAZEN BEHIN CLOWN TALDEA
SEXIJENTZIAK?
ASKATUZ IAKA?




BERAKO XVIII
2016
KAFE-ANTZERKI
ZIKLOA




EZ DA KASUVLITATEV

BERTSO SAIO MUSIKATUA BERAN
URRIAREN 29an, KULTUR ETXEAN, 20:00etan

Amaia Agirre

Araia Martin

Jone Uria

Oihana Iguaran



GAI JARTZAILER
Ainhoa Aramburu

MUSIKARIAK
Gari Otamendi
Ixak Arruti

Sorrera: 3 euro



ttipi txartela

ekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus



ZOZKETAK

Lesakako Udal kirolegia - 2 sarrera
M^a Luisa Etxeberria Madariaga | ICANTZI
Baztan Abentura Park - 2 tirolina tiket
Maialen Gonzalez Perurena | LEITZA
Irisarriland - 2 sarrera
Bittor Elizagoien Etxegarai | ORONOZ-MUGAIRI
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Milagros Esteban Rodriguez | ELIZONDO
Buatxabal | Kamiseta bat

Antonio Etxaide Elorga | URDAZUBI
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Korpus Urroz Mutuberria | IRUÑEA
Mauka musik - CD bat
Inaki Zozaiña Goñi | BEINTZA-LABAIEN
Mauka musik - CD bat
M^a Luisa Santesteban Baleztena | ERATSUN
Mauka musik - CD bat
José M^a Erasun Erasun | DONEZTEBE

672.
aleko irabazleak



2 OTORDU
ZUBIETAKO HERRIKO OSTATURIA
www.arkupegozotegia.com



2 sarrera
SARRERAK
ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera
Txingudi
Merkataritza-gunea
IRUN
GONBIDAPENAK
CAMELOT PARK
www.camelotpark.es



GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



KAMISETA BAT
ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

LI BU RU AK



- Klara zirimola
Braulio Llamero / Eider Eibar
- Suzko zaldia
Fina Casalderrey / Valentí Gubianas

erein
argitaletxea
www.erein.com

DES KON TUAK %

Olaia Bazar

LEITZA | %10, 30€tik gorako erosketetan

KULUNKI

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

txinelka

LESAKA | %10

ttipi-ttapa

LESAKA | %10, esketetan

ELBETEKO POSADA

ELBETE | %10, kartan 30€tik gora txartela duenari

ALZURI ELEKTRIZITATEA

LESAKA | %5, etxetresnetan